




«ZEIN ORDU DA, ZEIN ORDU?»,
GALDETZEN ZUEN AZURMENDIK
GAZTETAKO OLERKIETAN. BADA, ORDUA
HELDU ZAIO. HORREN HARIRA, BERE
BIZITZAREN ETA PENTSAMENDUAREN
INGURUKO ALE BEREZIA
OSATU DUGU.

JOXE AZURMENDI, **ASKATASUNAREN PENTSALARIA**



03 Iñaki Soto: Askatasunaren eta herriaren aldeko euskal pentsalaria

04 Mikel Urdangarin: Joxe Azurmendi, ekipoan aritu den «idazkina»

08 Idurre Eskisabel: Euskaltzaletasun garaikidearen zizelkaria

10 Pello Otxandiano: Itsasargia

11 Alaitz Aizpuru: Eskerrik asko, Joxe!

12 Jule Goikoetxea: Espainolak euskara ikasi zuenean

14 Jon Jimenez eta Andoni Olariaga: Askatasun haizea

16 ZUGAZART

18 Cira Crespo: 43° paraleloa

20 Alba Garmendia: Utopia ezkerreko abertzaletasun aurrerakoia dela zioen filosofoa hil da

22 Elkarrizketa Lorea Agirre, Haritz Azurmendi eta Kepa Enbeitari:
«Azurmendi garaiko galderak erantzuten eta garaiari galderak egiten aritu da beti»

28 Joana Garmendia: Joxe

28 Markel Olano: Pentsamendua herriaren zerbitzura

30 Iñaki Zabaleta: Euskal Herriarekin konprometitutako pentsalaria

Askatasunaren eta herriaren aldeko euskal pentsalaria

Iñaki SOTO NOLASCO GARA egunkariko zuzendaria



Ezin da Joxe Azurmendi ulertu Joan Mari Torrealdei, Joseba Intxausti, Paulo Agirrebaltzategi eta gainerakoak kontuan hartu gabe, Joseba Jaka gogoratu gabe, Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi” aldarrikatu gabe. Era berean, bere alde edo kontra egon, ezin da Azurmendi euskal nazio askapenerako mugimendutik banatu. Bestela, ez da Joxe ulertu nahi izango, ezta berak bere burua kolektiboki non kokatzen zuen ere: herrigintzan, herriarekin, botereen aurka. Mundua ulertzeko gogoa da, hain zuzen ere, Joxek utzi digun altxorretako bat. Baita munduari begirada kritikoz begiratzeko joera ere.

Ernst Cassirer eta bere animalia sinbolikoaren bizkarrean, Filosofiaren galdera nagusiak ikasi genituen: Zer jakin dezaket? Zer egin behar dut? Zer itxaron dezaket? Eta garrantzitsuena, zer da gizakia? Marko hori ardatz hartuta, euskaldun izateak galdera horiek nola moldatzen dituen asmatzen ahalegindu ginen. Klasikoak irakurri eta ulertu genituela sinetsi genuen: Kant, Herder, Hume, susmoaren filosofoak... Frankfurteko Eskolara salto egin genuen eta pluralismoari eta erlatibismoari buruz ikasi genuen. Eta Leninekin “zer egin?” galderari beste erantzun batzuk bilatzen saiatu ginen, arrakastarik gabe, printzipioz.

Joxeren apaltasunak, bere ezagutzak eta argitasunak, eta behar zuenari laguntzeko prestutasunak, une ilunenetan herrigintzako militanteon bidea argitzen zuen pospolo bihurtu zuen. Arantzazutik Alemaniara ko bidean, eta bueltan, pentsamendu sistema koherente eta indartsu bat eratu zuen. Herriaren mesedetan, Euskal Herriaren alde, askatasun gosez.

Gazte harroputz, dogmatiko edo erretxinduekin zeukan pazientzia pedagogikoa ikaragarria zen. Baita fatxeekin zuen tenplea ere. Ahots-tonu leun batez, uni-

bertsitatearen habeak dardarka jartzen zituzten ideiak esaten zituen. Zorrotza eta erradikala zen Joxe.

Hil denerako gu demokratak garela eta haiek biolentoak direla argi geratu da. Esan ohi zuen bezala, lehen ezkerretik pasatzen zitzaizkigunak orain eskuinetik pasatzen zaizkigu. Beren kosmopolitismoa paumen gisara erakusten zutenek nazionalismoaren eta autoritarismoaren bertsio okerrenak bere egin dituzte. Arrazoirik ez zuten; lotsarik ez dute sekula izan.

Arrazoia izateak ez gaitu askatu, ordea. Kontrakoa gertatuko zela uste bagenuen, ez genuen arretaz entzun. Joxek politikagintzan egin zituen sartu-irtenak beti izan ziren zuhurrak eta errespetuzkoak. Pentsatzen zuena ez esateko konpromisoa zuen, mundu guztiak libreki esaterik ez zuen arte. Printzipio horrek

Joxe Azurmendi hil denerako gu demokratak garela eta haiek biolentoak direla argi geratu da. Esan ohi zuen bezala, lehen ezkerretik pasatzen zitzaizkigunak orain eskuinetik pasatzen zaizkigu

bere kritika zentzudun batzuk ezagutzea galarazi zигun. Baina tranpa askotan ez erortzen lagundu zigun.

Kooperatibismoa sozialismoa da... edo hala izan dadin lan egin behar da. Nafarroa Euskal Herria da... edo lan egin behar da izan dadin. Euskara euskal herritarren hizkuntza da... edo lan egin behar da izan dadin. Beti lan egin behar baita askatasuna gailendu dadin diktaduraren aurka, berdintasunak mendekotasuna garaitu dezan, adimenak ergelkeriari merezi duen jipoia eman diezaion. Lanaren, diziplinaren, militantzaren kultura belaunaldi horiek utzi digutenaren ondarearen parte da. Ez dezagun ahaztu, ez gaitezen nahastu. Lan horrekin jarraitu besterik ez dugu. •

{ biografia } JOXE AZURMENDI, EKIPOAN ARITU DEN «IDAZKINA»

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

Joxe Azurmendi filosofo oparoa hil da. Itsasargia, maisua, eruditoa, konprometitua... Halako aitor-tza mezuak zabaldu dira nonahi. Ez da harritzekoa, haren ekarpena, arrastoa eta galera izugarriak baitira. Nor izan den hobeto ulertzeko asmoz, bere biografia laburtu dugu.

Nola laburtu zortzi hamarkadatik gora lau orrialdetan? Nola transmititu ozeano oso bat hiruzpalau tantatan? Joxe Azurmendiren biografia ofizialik idatzi ez bada ere, haren bizitza laburbiltzen duten lan dezente egin dira azken urteetan: Wikipedian errepaso bikaina egin dute, Lorea Agirrek solasaldi oparoa egin zuen Azurmendirekin, Haritz Azurmendik haren bizitzaren kronologia zehatza egin zuen bere doktore tesian... Horiek oinarri hartuta, Azurmendiren bizitzako mugarri eta pasadizo batzuk azalduko ditugu jarraian.

Zegamatik Arantzazura

Joxe Azurmendi Otaegi Zegaman jaio zen, 1941eko maiatzaren 19an. Gerraoste betean jaio zen, familia langile eta euskaldun batean. Osaba bat Fronte Popularrekoa zuen, eta kartzelan eduki zuten; beste osaba bat, berriz, fusilatu egin zuten.

Hamar urterekin Arantzazuko frantziskotarren ikastegira joan zen. Bere hitzetan, «pobreen unibertsitaterra». Zergatik? «Neuk eskatuta eta, gainera, aitaren borondatearen kontra. Aitarekin haserre handiak edukita. Sekula ez dut jakin zergatik. Familia ez zen oso erlijiosoa ere, oso deboziozkoa. Aita, batere ez. Ama, gehiago. Baina ez zegoen inolako harremanik erlijioarekin edo apaizekin». Azkenean, baina, bere borondatea gailendu zen.

Tarte horretan hainbat galera izan zituen. Haste-ko, aita hil zitzaion lan istripuan, paper-fabrikari zela: «Aita hil, aita hil. Aita / hil dit Jaungoikoak», egiten zuen lantu gaztetako olerkietan. Segitzeko, «euskara galdu egin nuen, debekatuta zegoelako, eta hitz egiteko gauza ez izateraino galdu nuen. Umeak berehalaxe galtzen du. Neure aitarekin erdaraz hitz egin nuen bere azkeneko egunetan. Erdaraz hitz egiten nuen anai-arrebekin ere». Euskara ez ezik, euskal identitatea ere galdu zuen: «Ni ume euskalduna naiz, sortzez, baina maisuek beti eus-



Joxe Azurmendi, gaztetako irudi batean. AŮNAMENDI ENTZIKLOPEDIA

kaldunez mespretxuz hitz egiten zute-nez, ni neu iritsita nago neure burua ez-euskaldun sentitzera. Euskaldunak baino gehiago sentitzera, edo diferente behintzat». Pentsa, «Jose Antonio Primo de Rivera orduan 'grandioso' sentitzen nuen, idazle ona eta etorkizun-se-na zuen politikaria. Hortik paseak gara eta hortik bueltatuak gara».

Buelta horretan, Erriberriera joan izana mugarria izan zen: «Hamasei urte-ekin joango nintzen, eta hiru urte egin nituen han. Erriberriera filosofia egitera joan ginenean hasi nintzen ni Euskal Herria deskubritzen, euskara deskubritzen, Arturo Campion irakur-rriz, irrika handiz gainera». Gazteluan gora eta behera, «entusiasmatu egin

nintzen garai bateko Nafarroarekin. Nafarroako konkistaren arazoak neu pertsonalki mindu ninduen, nafarra sentitzen hasi nintzen». Euskarazko poesia idazten ere hor hasi zen.

1959an Arantzazura itzuli zen, eta hor hasi zen euskara eta euskal identi-tatea kontzienteki lantzen. Kepa Enbeita eta Joseba Intxaustik bultzatuta, Ja-kin eraberrituko kide egin zen, eta lehen artikuluak argitaratzen hasi zen: «Bergson-en problema», «Neskatxak ez dute euskeraz itzegin nai...», «Asi gaite-zen komunismuarekin alkar izketan»... Jakin-en jite berriarekin bat, askotariko gaiak lantzen zituen: kultura, erlijioa, poesia, literatura, hizkuntza...

Europar barna

1964an Arantzazutik Forura joan zen, latina eta literatura irakastera. Hantxe apaiztu zen. Europara jo zuen ondo-rengo urteetan: Finlandian, Parisen eta Budapesten egon ostean, 1965ean, Erroman, teologia ikasketak egin zi-tuen. Handik, berriz, Alemaniara joan zen, Münsterrera, teologia ikasketak jarraitzera. Liluratuta geratu zen: «Egia esateko, ni alemanen beldur nintzen orduan. Imajinatzen nituen beti bota luzeak jantzita, nazi batzuk, alegia. Eta deskubritu nuen Alemania harrigarri bat: jende maitagarria, adei-tsua eta zuzena, eta laguntzeko prest zegoena. Nik neukan irudiaren erabat kontrako Alemania bat ezagutu nuen. Alemana ikasi nuen kurtso intentsibo batean, eta bertan gelditu nintzen es-tudiatzera». Behin amaituta, 1970-1975 artean Filosofia ikasketak egin zituen Münsterren bertan.

Eta hor ere izan zuen ezustekorik. Izan ere, «akusatu ninduten, baita prentsan ere, Carrero Blanco hiltzeko armak eta lehergaiak pasatzeaz. Abisa-tu zidaten ezkutatzeko, eta ezkutatuta egon nintzen». Alemaniako poliziak berak babestu omen zuen: «Ezkutatuta eduki ninduten beren pisu batean, hi-labete pasa. Debekatuta neukan han-



dik ateratzea ere. Baina Urte Zaharrean, Alemanian zarata terriblea ateratzen ohi dutela-eta, nire gela horretan, non-bait, beldurtu egin nintzen, eta handik ateratzen eta kalean bueltara ibili nintzen gau osoan. Eta, orduan, esan nuen, 'ni ez noa hor ezkutatuta bizitzera, ni banoa etxera normal bizitzera, eta kito'. Eta ez zen ezer pasa. Eta horrela jarraitu nuen». Espainiako enbaxadorea ere joan omen zitzaion, Carreroren hilketa kondenatzen zuen idatzi bat sina zezan. Hark, baina, uko egin zion.

Ondorioz, Hego Euskal Herrira ezin zuen itzuli Joxe Azurmendik: «Polizia alemaniarrek berak esan zidan ez etortzeko inoiz gehiago. Ez dakit zein informazio edukiko zuten, baina haxe esan zidaten: 'Zu hemen egoiliar zaren bitartean, guk zerbait egin genezake, baina itzultzen bazara inork ez zaitu libratuko zazpi-zortzi eguneko torturetatik'. Beraz, bazekiten hemen torturatzen zela».

Marxismoa hizpide

Kanpoan ibiltzeak ez du esan nahi Euskal Herritik erabat aparte zebilenik. Hasteko, erbestean zeuden militanteekin harremana sendotzeko aukera izan zuen bitarte horretan. Bereziki Txillardegirekin, orduan Bruselan baitzegoen. Krutwigekin ere kontaktuak izan zituen. Horrez gain, Donapaleura eta Baionara ere sarri etortzen zen. Adibidez, 1973an Udako Euskal Unibertsitatearen lehen ekitaldietara etorri zen, eta Manex Erdozaintzi, Piarres Xarriton eta beste

«Ni ume euskalduna naiz, sortzez, baina maisuek beti euskaldunez mespretxuz hitz egiten zuten, ni neu iritsita nago neure burua ez-euskaldun sentitzera. Euskaldunak baino gehiago sentitzera, edo diferente behintzat»

Garaiko eztabaidetan: «Zuek marxismoa esaten duzuen hori, marxismo dogmatiko bat da. Ez da internazionalki marxismoa ere. Marxismoak, gaur, errepresentazio diferenteak dauzka, zuena XIX. mendekoa da»

hainbat kide ezagutu zituen. Eztabaidetan ere presente zegoen, Jakin-en, "Anaitasuna"-n eta "Zeruko Argia"-n kolaboratzen jarraitu baitzuen. 1967an lehertutako 'Zergatik eta zertarako euskaldun' polemikaren protagonistetako bat izan zen, esaterako.

Garai hartan, Euskal Herrian marxismoa zen eztabaidagai nagusietakoa. Azurmendiri ere sortzen zion interesa: «Nik ere marxismoaz asko irakurtzen nuen. Münsterren estudiatzen nuen eta han literatura marxista asko saltzen zen. Lenin eta Stalin eta hauek italiaraz irakurri nituen lehenengoz. Erroman hasi nintzen marxismoaz irakurtzen. Arantzazun uste dut ez zegoela gauza handirik, edo behintzat nik ez nuen irakurri». Alemanian marxismo interesgarri bat topatu zuen, gainera: «Nik neomarxismo frankurtiar liberalago bat aurkitu nuen. Liberalagoa zentzu honetan: marxismoaz gain, Freud sartzen du, soziologia modernoago sartzen du, antropologia sartzen du... Ez da marxismo dogmatiko bat». Ipar Euskal Herrian ere hala topatu omen zuen.


Bere iritziz, baina, Hego Euskal Herrian bestelakoa zen errealitatea: «Existenzialismoa inspirazio gisa hedatu zen bitartean, marxismoa doktrina bezala planteatu zen batez ere, batzutan kredo bezala ere bai». Marxismo hura, dialektikoa izan beharrean, «itxiturakoa» omen zen. Alemaniako irakaspenak gogoan, horren aurrean honako hau zen Azurmendiren eta Txillardegiren mezua: «Zuek marxismoa esaten duzuen hori, zuen marxismo dogmatiko bat da. Ez da internazionalki marxismoa ere. Marxismoak, gaur, errepresentazio diferenteak dauzka. Alemanian batez ere Frankfurteko eskolarekin, Polonian Kolakowskirekin, eta abar. Zuen marxismoa XIX. mendeko marxismo bat da».

Hori frogatu eta marxismoaren eta abertzaletasunaren arteko artikulazio aberatsagoa bilatzeko asmoz, Azurmendik eta beste hainbatek «plan bat» egin zuten, «liburutxo batzuk estudianteen artean, eta Euskal Herrian oro har, zabaltzeko». Esan eta egin, auziari lotutako lan ugari egin zituen zengamarrak: "Hizkuntza, etnia eta marxismoa" (1971), "Kultura proletarioaz" (1973), "Nazionalismo - Internazionalismo Euskadin" (1979), "PSOE eta abertzaletasuna" (1979)...

Euskal Herrira itzulera

1976an Hego Euskal Herrira itzuli zen: «Franco hil zenean, Jakinen ibilitakoak Donostian etxe batean bizitzen jarri ziren. Joan Mari etorri zen Paristik, Joseba Intxausti Bartzelonatik. Eta ni Jaki-

Ezkerreko argazkian, Joxemi Zumalabe, Iñaki Uribe, Inaki Irazabalbeitia eta Joxe Azurmendi, euskal prentsaren eguna iragartzen, 1988an. Eskuineko argazkian, Lorea Agirre, Paulo Agirrebaltzategi, Joseba Intxausti, Joan Mari Torrealdai eta Joxe Azurmendi, Joseba Intxaustiren obraren digitalizazioaren aurkezpenean, 2014an.
ARGIA ALDIZKARIA / WIKIPEDIA
Gorka RUBIO | FOKU



aurkeztu zuen tesia, Victor Gomez Pin eta Julio Caro Barojak zuzenduta, eta irakasle titular izendatu zuten 1986an. Ondorengo urteetan, liburu eta artikulugari argitaratzeaz gain, unibertsitatetik bertatik ere ekarpen interesgarriak egin zituen euskal pentsamendua garatzeko: klaseak eman zituen; beste batzuekin batera, “Klasikoak” bilduma abian jartzen ibili zen, filosofiako oinarrizko pentsalarien lanak euskarara itzultzeko; 1992-1995 artean Eusko Ikaskuntzako Batzorde Iraunkorreko kide izan zen, EHUko errektorea ordezkatzuz; Eusko Ikaskuntzen Nazio Arteko Aldizkariko (RIEV) erredakzio kontseiluko kide izan zen... Ibilbide oparo hori zela medio, EHUko Filosofia Modernoko katedradun izendatu zuten 1993an.



Goiko argazkian Joxe Azurmendi Zarautzen, 2004an, «Filosofiako gida» liburuaren aurkezpenean, liburuaren beste egile batzuekin batera. Azpiko argazkia, berriz, 2019koa da. Donostian dago, Joxe Azurmendiren inguruko kongresuaren irekiera ekitaldian.

Imanol OTEGI | FOKU
Jon URBE | FOKU

nera etorri nintzen. Nik garbi esan nuen: ‘Ni komentura ez noa. Baina Jakinera bai’. Eta nire etxea Jakin izan da». Gerora, Koloniaren (Alemania) eta Donostiaren artean bizi izan da urte luzez.

Apaiagoa utzi eta euskarazko kulturegintzako mugimenduan bete-betean murgildu zen hamarraldi hartan. Jakin-eko zuzendaritzan aritzeaz gain, Donostiako Bilintx liburu dendaren irekieran lagundu zuen, Elkarren eta “Euskaldunon Egunkaria”-ren sorreran parte hartu zuen, UZEI lexikografia eta terminologia zentroarekin hainbat elkarlan egin

zituen... Berak, apaltasunez, erlatibizatu egin zuen parte hartze hori: «Jakinen laguntzen nuen, hori da beti egin izan dadana, lagundu. Nik beti esan izan dut neure buruarengatik, ni bigarren oso ona naizela, eta lehenengo oso txarra. Gauza guztietan. Kolaboratzaile on bat».

Bere ibilbide akademiko eta profesionalen ere urrats sendoak egin zituen garai hartan. EUTGn eskolak eman zituen, Deustuko Unibertsitatean. Gainera, Jakin-eko lagunek bultzatuta, Arizmendiarietaren inguruko doktore tesiari ere ekin zion. Aitortzen zuzenez,

hasieran nagia sentitzen zuen, «ni aski ezkertiarra bainintzen orduan, edo uste nuen nintzela, kooperatibismoaren kontra egoteko». Alabaina, «hasi nintzen haiek ordenatzen, irakurtzen bere idatziak, fitxak hartzen, notak egiten. Eta, poliki-poliki, Arizmendiarieta aurkitu nuen, eta aurkitu nuen benetan buru interesgarri bat dela, gizon interesgarri bat». Gerora, gizaberearen dimentsio kooperatiboa ulertzeko funtsezko iturrietako bat izan du.

1982an EHUra igaro zen, Zorroagako Fakultatera eskolak ematera. Hantxe

Euskal Herria krisian

Euskal Herrian ez zen giro urte horietan. Berunezko urteak ziren, gatazka politiko-militar gordinaren aroa. Enbeitak, Torrealdaik eta Azurmendiren beste lagun-min batzuek ez ezik, Azurmendik berak ere jasan zuen zuzenean. Adibidez, “Euskaldunon Egunkaria” itxiarazi zutenean, Azurmendi ere ikertua izan zen, nahiz eta azkenean ez zuten auzipetu. 2010ean lekuko moduan deklaratu zuen epaiketan.

Gatazkak eztabaida politiko, sozial eta filosofikoak ere blaitzen zituen: biolentzia zilegi al da? Zein egoeratan? Azurmendik ez zion iskin egin auziari, eta horri lotutako hainbat liburu argitaratu zituen 90eko hamarkada amaieran: “Oraingo gazte eroak”, “Euskal Herria krisian”, “Demokratak eta biolentoak”... Horien bitartez, zenbait diskurtso manikeoren hipokrisia biluzteaz batera, biolentziaren arrazoiak ulertzen saiatu zen: «Nik ez dut biolentzia justifikatzen, nik diot biolentzia justifikatuta egon dela. Nik beti esaten dut, neure formazioz, ezin dut justifikatu. Baina hemen justifikatuta dago. Dago. Komunitarioki onartuta dago. Nola onartzen du komunitate batek horrelako gauza bat? Ba onartu beharrean aurkitzen delako. Bestela inork ez du onartzen hori». Hori kontuan

«Euskal abertzaletasuna berregarri uzten saiatzen direnean eta barre egiten digutenean ez dira konturatzen barregarri eurak geratzen direla. Ez-jakin batzuk dira»

izanik, Azurmendirentzat, biolentzia abstraktuki kondnatu beharrean, gatazka biolento konkretu horri soluzio praktikoak ematea zen egiteko behina: nola sortu baldintza politiko, sozial eta kulturalak biolentzia inork onartu beharrik izan ez dezan? «Bakea ez da predikatzen, bakea egin egiten da», azpimarratzen zuen.

Milurteko berria hastearekin bat, berri, nazioaren auzian sakondu zuen, trilogia mardula argitaratuz: “Espainiaren arimaz” (2006), “Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua” (2007) eta “Volksgeist-Herri gogoa” (2007). “Espainolak eta euskaldunak” (1992) liburu entzutetsuan nola, Europako pentsamenduan barna murgildu eta zenbait intelektual espainol eta ‘zibikok’ haizatutako topiko-tipikoak (euskaldunak = etnikoak, itxiak) hankaz gora jarri zituen: «Euskal abertzaletasuna berregarri uzten saiatzen direnean eta barre egiten digutenean ez dira konturatzen barregarri eurak geratzen direla. Ez-jakin batzuk dira».

“Azken egunak Gandiagarekin” (2009) liburua idatzi zuen jarraian. Bere liburu pertsonalena izan da. Gandiaga lagunarekin elkarriketan, bizi zentzuaz, heriotzaz edota fedez hausnartu zuen, beste gai askoren artean: «Bizitza bat aukeratzeko hamai-kari uko egin beharra da», baieztatzen zuen bertan, aukera horien inguruan gogoeta eginez.

Lanak bukatzen

Azken urte luzeetan gaixo ibili da: «Bai, urte asko, aje asko, botika asko. Bolada luzetxoa da medikuek kirofanotik kirofanora narabiltela. Material pila daukat, ordea, hainbat gairen inguruan bilduta, eta gustatuko litzaidake erdi egindako lanen batzuk bukatzea, beste ezer egiten ez dakit eta», zioen 2016an.


Diziplina frantziskotarrak bultzatuta, azken urteetan lan horietako asko bukatu eta argitaratu ditu: Euskadi Literatura Saria saria jaso zuen “Historia, arraza, nazioa” (2014), “Gizabere kooperatiboaz” (2016), “Hizkuntza, nazioa,

«Nik lumarekin lan egiten dut eta langilea naiz besterik gabe: idazkina. Nik idatzi dudana, guztion borroka eta premietatik idatzia da. Literatoak askatasunetik idazten badu, euskarazko saiogileak, onenean ere, askatasunerako»

estatua” (2017), “Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk” (2018)... “Europa bezain zaharra” (2023) azkena, beti bezain zorrotz eta iradokitzaile. Seguru bere artxiboan beste hainbat lan ere geratu direla erdi-eginda, aurrerago argitaratuko direnak.

Sariak eta aitortzak ere jaso ditu azken urteetan. 2010ean ohorezko euskaltzain izendatu zuen Euskaltzaindiak; 2011n EHUKo katedradun emeritu izendatu zuten; 2014an Jakin taldeko zuzendaritza utzi eta ohorezko kide bihurtu zen; 2018an Gipuzkoako Foru Aldun-

Joxe Azurmendi 2014an, «Historia, arraza, nazioa» liburuaren aurkezpenean.
Gorka RUBIO | FOKU



diak Urrezko Domina eman zion Jakin taldearekin batera... Bere pentsamendua aitortu eta zabaltzeko ere hainbat ekimen egin dira. Hala nola, Joxe Azurmendi Katedra sortu zen 2019an, eta Joxe Azurmendi eskainitako “Euskal pentsamenduaren ur-jauzia” kongresua egin zen urte horretan bertan.

Idazkina

Jabetuko zinetenez, Azurmendiren obraren zabalera ikaragarria da. Hemen aipatu gabeko beste hainbat gai ere landu ditu: gizakiaren aberetasuna, teknika, erlijioa, literatura... Guztira, 42 liburu eta ehunka artikulua argitaratu ditu, euskaratik eta euskaraz. Arrazoiz, euskal saiogilerik oparoenetako bat dela esan ohi da.

Nondik sortu ote zaio horrenbeste gairekiko interesa? Haren hitzetan, «kuriostatea beti eduki dut. Sobrante gainera. Nik akats bat daukat: ni egoten baina zapatari bati begira ere, berehalaxe jakin nahi dut nola arraio egin daitekeen hori. Eta, badakit, neu munduko gauzarik inutitena naizela gauza horiek egiteko, baina jakin nahi izaten dut, nola egiten den eta zergatik». Hala, «eszepetikoia izanda ere, ni aktibo naiz. Ni azkenean, nolabait optimista bat naiz, bilaketan oso aktiboan segitzeko».

Bilaketa horretan oinarriak eta iparra argi izan ditu: «Lumarekin batzuek idatzi egiten dute, idazleak dira: poetak, nobelistak, ipuilaria. Nik lumarekin lan egiten dut eta langilea naiz besterik gabe: idazkina. Ene haurtzaroko basomutil nafarren antzera, euren lanetako lankide naiz, beste pentsamendu bat, beste euskara bat, bestelako herri bat jaso nahiz, ekipoa diharduen langileekin. Hala, nik idatzi dudana, guztion borroka eta premietatik idatzia da. Literatoak askatasunetik idazten badu, euskarazko saiogileak, onenean ere, askatasunerako».

Horregatik, Jon Jimenezek eta Andoni Olariagak behinola definitu zuten bezala, Azurmendi «askatasunaren pentsalaria» izan da: irribarretxo ironikoa ahoan, herri eta herritar bezala askeagoak egin gaituen filosofo unibertsala.



Idurre ESKISABEL LARRAÑAGA

Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia

Euskaltzaletasun garaikidearen zizelkaria

Gerra aurreko eta eskolarik gabeko gure amonak jakin bazekien euskara baztertu eta gaztelerarekin ordezkatzeari aukera instrumentala erruz gainditzeko zuen galera itzulerarik gabea zela. Horregatik egin zen oso gazte zela Emakume Abertzale Batzako kide, horregatik lotu zitzaion antzerkiari, dantzari... Hau da, hizkuntza min horretatik abiatuta, eta min hori

sendatzeko premiak ez ezik, mina bera ulertzeko, izendatzeko eta besteekin partekatuz zentzu bat emateko senak, plazara eramanezuen, ekitera, politikara.

Gerra inoiz sendatuko ez zen mutilazio errotikoa izan zen gure amonarentzat, eta haren bide bertsuan politizatu ziren milaka emakumerentzat. Hegoak ebaki zizkieten. Baina eutsi zioten ahal izan zutenari, gure amonaren kasuan, adibidez, gerraosteko

Iruñea laiotz hartan, seme-alabak euskaldun iraunarazteari. Kosta ahala kosta. Jakin bazekielako hori zela azken erresistentzia gunea. Errailetatik zekien hori guztia amonak: ezagutzaren ernamuin den senetik. Baina hainbatetan hitzak falta zitzaizkion, kontzeptuak, norbere baitatik haragoko zentzuak, min eta galera haiek izendatu eta besteekin elkarbanatzeko. Ebaki zioten plaza, politika. Erauzi mundua.

Hurrengoengan hazia landatuta zegoen, ordea. Gerra ondorengo gure amak tabu, hitz-erdi eta debekuen gainetik jakin bazekien euskara baztertu eta gaztelerarekin ordezkatzeari aukera instrumentala erruz gainditzeko zuen galera itzulerarik gabea zela. Horregatik hurbildu zen ezkutuko bileretara, ikastolen mugimendura... Eta hura ere, mina sendatzeko premiak ez ezik, mina bera ulertzeko, izendatzeko eta besteekin partekatuz zentzu bat emateko senak plazara eramanezuen, ekitera, politikara. Hegal berriak janztara, Pizkunde berri batera.

Ordurako gerraosteko belaunaldia ari baitzen euskarazko eta euskarari buruzko pentsamendua ongarritzen. Euskararen mundua eta mundua euskaraz eraikitzen. Eta, jakina, Joxe Azurmendi, hargin nagusien artean; are, hargin maisu.

Izan ere, Azurmendik zizelkatu du, hein handi batean, euskaltzaletasun garaikidea. Eman digu, tresneria ez ezik, zorua ere gure amonek senez zekitenari hitzak jartzeko, izendatzeko, ulertzeko, kokatzeko, zentzua emateko... Gure min edo auzi fundazionala plazara, ekitera, politikara eramateko. Ikusarazi digu gizabaretxook hizkuntzan hartzen dugula geure buruaren jabetza, eta, horrenbestez, euskara

2013

«BERRIRO ETA BEHIN» LIBURUAREN HITZAURREA

Nik esango nuke, gerraosteko belaunaldiak euskaltasunaren definizioan eta autokontzientzian zerbait erlatiboki berririk ekarri badu, horixe izan dela: «Herri baten izakera eta bere hizkuntza elkarri josirik, loturik eta iratxekirik daude errotik», Txillardegirekin esateko (gizakia abere razionala da, definitzen denean ere, hizauna da –logos–, ulertu behar da: arrazoitu hizkuntzarekin egiten da). Euskal Herria ez da euskara bakarrik, baina lehen-lehenbizi euskara da. Kontzientzia hori ez zen berria. Gerraostean, alabaina, erresistentzia politikoaren trabengatik ere, efikazago agertzeko chance berri bat izan du, eta ikastolen mugimendua, euskararen batasuna eta normalizazioa, euskalduntze eta alfabetatze kanpainak, literaturaren birloratzea, kanta berria, etab., uhin handia altxarazi du hizkuntzaren alde.

(...) Bai, zerbait berririk egon bada gerraosteko belaunaldiaren kontzientzia abertzale eta euskaltzalean, hori izan dela esango nuke: nazioa lehen-lehenik hizkuntza delako uste sendoa, eta hizkuntza bat mundu-ikuskera bat dela. Tribuak atzera utzi, eta nazio izaten ahalegindu gura izan dugu. Hizkuntza nazional bat batzen, nazio batua izateko. Mundu-ikuskera galdu edo apurtua berreskuratzen, berria eraikitzen: euskararen unibertsoa. Konbentziturik munduak guri eta guk munduari egin ahal diogun oparirik ederrena horixe dela.



dela mundu baten lehengaia, gure munduarena, gutasun baten argamasa. Eta irakatsi digu garaiko pentsamendu ildo, eztabaida eta auzi orohartzaileekin elkarriketan baino ezin dugula osatu gure mundua, baina mundua osatzeko gure baitatik, euskaratik, pentsatzea ezinbestekoa dela.

Eta dudarik gabe, auzi garaikide eta orohartzaileekin zabaldu dituen elkarriketetan punta-puntako ekarpenak egin ditu. Horren seinalerik behinena, hark irekitako bideak arakatzen dabiltzala, gaur egun, milurte honen ertzetan jaiotako ikerlari eta pentsalari gazteak, Azurmendiri hitzak ebatziz, “oraingo gazte eroak”. Eta Joxe Azurmendiren arrastoan, ulertarazi digutela, esaterako, hizkuntza zapalkuntza egiturazko zapalkuntza dela;

Joxe Azurmendi
1982an Donostian,
Korrikaren bigarren
edizioaren amaieran.
Bere atzean, besteak
beste, Josu Landa eta
Iñaki Uria kazetariak,
Txema Ormazabal
argazkilaria, Xabier
Etxaniz idazlea,
Joxemi Zumalabe
kazetaria, Baleren
Bakaikoa
ekonomialaria eta
Julio Pardo
margolaria.
Arturo DELGADO |
KUTXATEKA

klasearekin, sexu-genero zapalkuntzarekin eta menderakuntza kolonialarekin batera, munduaren gaur egungo aldaera bizigaitz hau zutointzeko ezinbesteko osagaia, hain zuzen ere.

Are, haren emaria inoiz baino egoki, garrantzitsu eta bidezkoagoa gertatzen da, diruaren morrontza globalizatuari men eginez, politika esanahiz, eta, batik bat, egiteko gaitasunez erabat hustu diguten XXI. mendeko lehen laurden larri honetan. Izan ere, erosgarri diren produktu eta bizipenen desirak baino mugiarazten ez gaituen jende homogeneousatu eta identiko behar gaitu logika bizigaitz honek gurpil zoroan segitzeko. Mundu-ikuskera bereko milioika eta milioika gizabere txo. Ondorioz, bestelako mundu-ikuskerei eustea, desagertuta

edo altxorrera murriztuta nahi gaituzten hizkuntza eta hiztun komunitateei eustea, dugu azken erresistentzia gunea.

Ondoan ageri den testu pasartean dio Azurmendik –Joxe Austin Arrieta–ren “Berriro eta behin: euskara dela eta (Txillardegi gogoan)” liburuaren hitzaurrean: «Mundu-ikuskera galdu edo apurtua berreskuratzen, berria eraikitzen: euskararen unibertsoa. Konbentziturik munduak guri eta guk munduari egin ahal diogun oparirik ederrena horixe dela». Ausartuko naiz Azurmendirenari eranstera: oparia baino gehiago, euskararen unibertsoa berreraikitzea munduarekiko dugun betebeharra da, baldin eta oraindik sinesten badugu berdintasun eta justizia senak gidatuko duen mundu batean.

{Azurmendi, bi ertzetatik }

Itsasargia

Pello OTXANDIANO KANPO

EH Bilduko legebiltzarkidea



*Filosofoa
ez da
gauzak
pentsatu
dizkiguna,
gauzak
pentsarazten
dizkiguna
baizik*

JOXE AZURMENDI

Nazioen askapenaren eta jendartearen emantzipazioaren alde ari garenon bi erreferente intelektual itzali dira denbora gutxian: Pepe Mujica eta Joxe Azurmendi. Pepe eta Joxe bi mundu dira. Nor bere aldetik mundu intelektual bi, bizialdi oso bateko konpromisoz erai-kiak. Bi mundu, baita ere, beraien artean distantzia handia dagoelako, testuinguru eta bizi-esperientzia arras diferenteak izan dituzte-eta. Baina hainbeste markatu bagaituzte, hain geureak baditugu, izan da, biek ala biek, gure mundu ikus-kerak osatzeko erremintak eman dizkigutela eta agertu duten engaiamendu intelektualak inspiratu egin gaituelako.

Joxe Azurmendi itsaso intelektual bat da, sakonera handiko itsaso zabal bat. Nik ur gainean eta hondartzatik gertu egin dut igeri itsaso horretan. Nahiko nuke etorkizunean barrurago sartu, etxeko apalean zain dauzkadan liburuetan denbora mugarik gabe murgildu. Oso gaztea nintzelarik irakurri nituen “Euskal Herria krisian” eta “Euskaldunak eta espainolak”. Geroago, ETaren ondorengo ziklo politikoa irekitzearekin batera mahai gainean jarri ziren zenbait eztabaida argitu nahian, “Hizkuntza, nazioa eta estatua”, “Gizabere kooperatiboa” edota “Barkamena, kondena eta tortura”. Iazko gabonetan, “Azken egunak Gandiagarekin” hartu nuen eskuartean; oporrak nahi baino lehenago agortu zitzaizkidan.

Hori horrela, errespetu handia ematen dit Joxe Azurmendiri buruz ezer idazteak. Joxe Azurmendi gauza kolosala da, eta ni oso txikia bere legatuaren aurrean. Apaltasunetik, beraz, esango nuke Joxe Azurmendik bi ekarpen handi egin dituela (beste batzuekin batera): lehenik, euskal nazioaren erreibindika-



zioa oinarritu eta defendatzeko baliabi-deak eman dizkigu, espainolismo ilustratuak euskal abertzaletasuna deuseztatzeko egindako ahaleginari aurre eginez. Puskatuta jaso dugun gure nazioa ulertu, pentsatu eta eraikitze-ko erreferentzia saihetsezina da Joxe Azurmendi: euskal pentsalari emankorrena.

Bigarrenik, ideologia modernoak gure herri-senaren galbahetik pasatu beharraz ohartarazi gaitu: ireki gaitzen mundura, baliatu ditzagun ideologia modernoak eskuartean, hartu ditzagun, baina egin dezagun geuretik, eta, batez ere, euskal tradizioak eman diguna moldatu edo ordezkatzeko badugu, pentsa dezagun ondo zer eta nola, ez dezagun langintza horretan hutsune edo eten bat sortu euskal herrigintza-ren hari historikoan.

Aktualitate osoa du Joxe Azurmendiren obrak, eta zalantzarik ez dut itsasargi fundamentala izango dela etorkizunean ere. Euskal pentsamenduaren ur-jauziak iturri berriak behar ditu: Joxe Azurmendiren obra elkarrizketan jarri behar da berak urrun izan zituen emantzipazio korronteekin, feminismoarekin adibidez. Aldi berean, edozein emantzipazio korrontek, baita euskal feminismoak ere, behar du Joxeren obrarekin elkarrizketatu.

Ultraeskuinaren iraultza betean utzi gaitu Joxek, euskal nazioaren eta gizarte berdintasunaren kontrako oldarraldian, mundua amildegiaren ertzean dagoela. Esperantzari eusteko ere balio dit niri Joxe Azurmendik, itsasargiek piztuta irauten duten bitartean bideak hor egoten jarraituko baitu. Zorionez, Euskal Herriak puskatuta jarraitzen badu ere, Joxe Azurmendiren ekarpen intelektualaren tamainaz kontziente den jende asko dago gaur gure artean. Horrek zera esan nahi du: haria ez dela eten.



Eskerrik asko, Joxe!

Alaitz AIZPURI JOARISTI

Filosofoa

Galdetu nizun behin, ea nola adiskidetzen zinen mundu honekin. Zure erantzuna soila izan zen, azkarra, bai hitzez bai keinuz frantziskotar baten soiltasunezkoa eta galdera hori bere baitan gogoetatua duenaren azkartasunezkoa. *Animalia-txo batzuk baino ez gara* esan zenidan. Zenbat aldiz ez ote duzun hori esan. Animalia kulturalak, neurri batean irekiak, neurri batean askeak... baina animaliak. Gizabereak.

Zure erantzunean Jainkoaren ahotsa isildua da, zerutik lurrera etorriak gara, baina nolabait, hala ere, beste modu batera, berriz ere, lehengo euskaldunen “ez gara gure baitakoak” oihartzun urrun bezain gertukoa entzuten da. Guk modernokumeok, Ni-a gurtzen dugunok, gure baitakoak garela sinetsi dugunok, bederen, “ez gara *guztiz* gure baitakoak” esan beharko genuke, ezta, Joxe?

Horren da zaila, garenaren eta ez garenaren soka-dantza. Dakiguna eta ez dakiguna trentzatzea. Bizitzak heriotzari eta misterioari dion ordaina aitortzea, zein ni-ak eta gu-ak elkarri diotena, gu-ak eta bestea-k bezainbestekoa. Horren da zaila, gure esku ez dagoenarekiko onarpena eta gure esku dagoenarekiko ahalegin saiatua eta jarraitua, “*amor fati*”-a eta existentzialista engaiatu ekintzailea lagun egitea, patua eta hautua, emana zaiguna eta izan nahi duguna, lotura eta askatasuna jostea eta maitatzea. Ez da erraza, berdinerien plazan aniztasuna aldarrikatzea. Boterekerien eta zorientasunaren ideologian justizia eta askatasuna. Gizabe-rearen neurriko esperantzekin zinez amets egiten jarraitzea.

Horren da bihurria oreka, horren nekeza ahalegina. Artisau zailduaren eza-

gutza, pazientzia, trebetasuna, apaltasuna eta lana behar da hori guztia bilbatzeko, zu bezalako baten lana, zure lana. Eta zuk hainbestetan esan bezala, taldea, talde-lana. Jakinduria.

Zure hitzetan, *joandako ura dator beti berriro*. Ura eta Lurra, beti zahar, beti berri. Gizatasuna ere halaxe. Lurrekoak garela askotan esan diguzu. *Lurrekoa denak lurra entzuten duela* eta lurra entzun behar duela. Lurra, herria. Guk, nagusiki, euskaldunon lurra, euskaldunon herria, euskaldunon bizinahia, bizitza eta heriotza, euskararen eta euskal jendearen espazio sinbolikoa eta komunikazionala. Gure unibertsoa.

Euskal Herria dugula eginkizun, gure aurrean eta mundura zabalik, zenbat aldiz gogorarazi ote diguzu. Gure herria, gure hizkuntza, gure mundu espirituala, gizaki izateko gure modua berreskuratu, aldarrikatu, berregin, ikasi, asmatu, gozatu, maitatu guk geuk egin behar dugula. Taldean, komunitatean. Txikia handi dela. Gure mundu propioa, geure-geurea, txeraz zaintzea eta sortzea dagokigula, eta ez kanpo begiradez eta kanpora begirako xedez merkantzia eta bidesari lege saltzea, hustea, arroztea, ahaztea, amore ematea. Hamaika aldiz zuk esana da.

Behin betiko erantzunik ez eta, galdezka jarraituko dugu, behin betiko konponbiderik ez eta, lanean jarraituko dugu, zuk ondo erakutsi bezala, *pesimista aktibo*.

Eskerrik asko, Joxe! Gogoan izango zaitugu. Adiorik ez. Bidean eta zure artisau meditazioen baratzean elkartuko gara, *irribarretxo batekin libre, lasai, gauza guztiz seriosek merezi duten bezala*.

Aizkorripeko Arantzazuko lurrak gozo bezain aske har zaitzala.





Jule GOIKOETXEA MENTXAKA
Filosofoa

Espainolak euskara ikasi zuenean

Gogoan dut aitak "Los españoles y los euskaldunes" oparitu ziola amari haren urtebetetzean. Ez pentsa ama eta aita bikote zirenik, hitzek engainura eraman dezakete, euskaldunak ere ez ziren, ez zirelako *baskoparlanteak*, baina espainolak ere ez ziren, ezpada *kastellanoparlanteak*.

Horra hor nire lehen kontaktua Joxe Azurmendirekin. Joxek nirekin

izandakoa handik hamar urtera izan zen, Jakinek UEUrekin batera antolatutako "Euskara naziogintzaren eta estatugintzaren erdian" jardunaldieta. Eztabaida egon zen. Ez euskalgintzaren korronte baten eta beste baten artean bakarrik, ez horixe, estatuzale feministen eta ez-feministen artean ere bai. Hor jarraitzen du eztabaidak, ostiaka eta eskuka egina da kooperazioaren eta borrokaren alaba nagusia, eztabaida, hark elkar-tu gintuen Azurmendi eta biok.

Beno, eta espainolek.

Baina, zer dira espainolak? Gauzarik garrantzitsuenak izan ohi dira mitifikatzen errazenak eta definitzen zailenak. Ederra baina gezurra. Definizio oro baita zaila. Irrelevanteenak ere. Politikoak baitira, zentzuaren borrokan bizi dira esanahiak, horregatik aulkia ez da lau hanka dituen objektu hori, hiru izan baititzake, bi edo bakarra. Behar duguna definizio estrategikok dira, zintzotasuna bezala, bestela hutsala bilakatzen da,

1992

EUSKALDUNAK ETA ESPAINOLAK

Euskaldun eta espainol artean problema asko sortu da. Konprenigarri da. Tontoen elkartasunak hain jende inteligentearekin derrigor zaila izan behar. Inzibilizatu batzuk jende zibilizatuekin batera bizitzen jartzen badira, zibilizatuek bizimodu zaila dute, ezinbestezkoak dira konfliktoak. Makina bat sofriarazi diegu, horratio, espainolei! Konprenitzen da, noizean behin beren onetik aterarazi baditugu eta, pazientzia galdurik, gogortxo tratatu bagaituzte.

Horrelakorik berriz ebitatzeko, oinarri berri-berrien gainean antolatu behar dira espainol eta euskaldun arteko harremanak. Sánchez Albornozek argitu dizkigu oinarriok, eta oinarriok

aseguratuko dute gure elkartasun demokratikoa. Hona oinarri demokratiko eta zibilizatuok:

Bat: Euskaldunak no son más que unos españoles sin romanizar.

Bi: Euskaldunak son gentes rudas, sencillas, que además se creen hijos de Dios.

Hiru: Los vascos... tienen mil años de civilización menos que cualquier otro pueblo.

Lau: A pagar impuestos.

Politiko eta politika tipo zeharo berri honekin, azkenean bukatu dira euskaldunon zorigaitzak.

Biba demokrazia!



gaizkia balitz bezala. Hori da Azurmendik modernitateari egiten dion kritiketako bat. Araztasunez janzte bere hezur inperialak. Ongia bakearekin nahastea eta bakea ordenarekin, ordena propietate pribatuarekin eta propietatea askatasunarekin. Zintzotasun estrategikoa, zintzotasun intelektuala ere izendatua, ez da definizio batekiko leialtasun betierekoan jausten, definizioek efektiboak izan behar dutelako haien lana egiteko, toki eta garai zehatz bat behar dute, lurreratuak izan behar dira: 'lurralde-tuak' esango genuke primitibook; 'posizionatuak' edo 'kokatuak' esango lukete feministek, 'historikoa', klasikoek.

Lurraldea osatzen duten botere erlazioetan haragitzen baita hitzen hezurdura, euskaldunak bezala, bizitza

bezala, eta bizitzak ezagutzaren aldeko jarrera etiko eta politikoa eskatzen du, hori da zintzotasun intelektuala, Azurmendik hamarkadaz hamarkada garatu duena. Kritikarako eta autokritikarako gai den giza-beretxoa, munduan gertatzen diren gauzeekin minduta sentitzeko gai den animalia semiotikoa. Bidegabekeriak sortzen duen min hori baita aldaketa politikorako akuilurik indartsuena, mina eta nahimena. Bai, ni ere, Joxe bezala, Nietzschetik nator, Spinozatik, Marx, Mari eta Zeus hiltzailetik. Azurmendi eta bioi garai historiko antzekoa bizitzea tokatu zaigu, modernitateak modernitatea irensten dueneko; euskara debekatuta zuten, baina espainolak ez ziren *kastellano-parlante* batzuek euskaldun hezi nindutenekoa, eta horiek euskaldun hazi

baina *kastellanoparlante* hil ziren amona-aitonek munduratutakoak, espainol batzuek tarteko, haiek bai espainol, ez *kastellanoparlante*. Zein izango ote da diferentzia? Armak. Ziur aski, armak. Eta estatua. Eskuar-ki estatua. Akaso ilustrazioa.

Joxek ere ez du kapitalismoa sostengatzen duen ilustrazio supremazista maite, baina espainolak eta frantsesak izan direlako tradizional-ki unibertsalak, edo euskaldunak unibertsaltasunera ailegatu ezin diren izaki erdi egosiak bilakatu zirelako, alegia, emakumeak? Eztabaidak jarraitzen du.

Unibertsaltasuna lehertu edo unibertsaltasunean infiltratu. Guk argi dugu. Baina gu ez gara modernoak, euskaldunak gara. Ironiarik gabe bizitzak ez du merezi eta etsairik ez baduzu, ez zara fidatzekoa. Etsai gutxi baldin badituzu baina boteretsuak, orduan elitearen parte zara. Boteretik gabeko etsai asko baldin badituzu, orduan estrategiarik gabeko izakia zara, eta etsai ugari badituzu botere anitz eta sakabanatuekin, orduan? Galderari ematen diozun erantzunak historiaren alde batean edo bestean kokatuko zaitu. Gogoan dut unibertsitateko sailak, zer esanik ez filosofiakoa, bitan banatzen zirenean, etakideak eta espainolak (edo euskaldunak eta espainolak?). Eta infiltratuak? Nola aldatu diren gauzak hamar urte eskasetan.

Arerioak eta etsaiak biderkatu zaizkigu, horrexegatik biderkatu behar dira irakurketak, eta halaxe iristen gara Azurmendi eta bion arteko hirugarren enkontrura. Egiatan, Azurmendiren dizipuluekin izango da enkontrua, haiek izan baitira haren pentsamendua euskal feministekin elkarriketan garatu dutenak, eta Azurmendiren zintzotasun intelektualari jarraikiz, horrela erantzun zuen horietako batek, Mikel Urdangarinek, Joxe Azurmendiren eta euskal pentsamenduaren inguruko bere tesi defentsan: nola kenduko dut feminismoaz ari den tesiaren bigarren parte osoa, euskal pentsamendua feminismotik egiten bada?

Ai modernitatea, espainolak euskara ikasi zueneko.



Joxe Azurmendi, Jule Goikoetxea eta Lorea Agirre, Iruñeko Katakraken, 2015ean, Jakinek UEUrekin batera antolatutako "Euskara nazioagintzaren eta estatugintzaren erdian" jardunaldietan. Iñigo URIZ | FOKU



Andoni OLARIAGA AZKARATE eta Jon JIMENEZ MARTINEZ
Filosofoak

Askatasun haizea

1999

EUSKAL HERRIA KRISIAN

Pentsatu, pentsa dezaket, biolentzia legitimoa dela, izan, baina ahulak eta gutxi garela, sufrimendu gehiegi kostatzen dela, etc.; edo pentsa dezaket, momentu honetan Europan agintzen duen sentsibiltateak ez lukeela ongi ulertuko askapen mugimendu biolento bat; edo izan ninteke Mirandetar bat soil, ideietan ausarta eta ekintzetan uzkurra: nolanahi ere, finean, borroka armatua ez dela egokiena, edo neuk egiten dakidanerako behintzat egokiagoa dudala legezko lehian saiatzea, erabakitzen dut. Ez dut biolentzia kondenatu egiten. Hautu ez biolentoa da neurea, halere, berdin da zergatik, eta biolentziarik ez dut praktikatzen. Zein Estatuk eta San Pedrok esijitu behar dit, eta demokrata baldin bada are gutxiago, neure hautu hori beste guztientzat ere zilegizko bakarra kontsideratzea? Biolentziaren aurka arrazoi etiko edo erlijiosoengatik egotea –“printzipioz” alegia–, eta arrazoi intimo horiek aldarrikatu egin behar izatea gainera? Lapurtzen ez dudana bitartean, poliziaren eta kartzelaren beldurragatik bakarrik bada ere, Estatuari zor diodan guztigutia nahikoa konplitzen dut. Estatuak eta politikoez ez daukate zergatik ezer gehiago eskatu, eta gutxien-gutxiena daukate zergatik nire kontzientziaren barruan ezertarako sartu.

Baina ezagun du, beste mila gauzatan ikusten den bezala, hemen berdin: Espainia Eliza bat da, eta horko politika erlijio katoliko apostolikoa. Ideiak, denak libre daudela demokrazian, esaten da gero! Hemengo hau zer kultura demokratiko den, galdetu behar.


Ondo dago guardia zibil bat hiltzea?». «Zer zara lehenago, abertzalea ala demokrata?». Hala-ko galdera probokatzailerekin hasten zuten Joxe Azurmendik unibertsitate klase asko eta asko. Orain buruan izan dezakezun erantzun arrazionala, afektibo edo ideologikoa ez zitzaion interesatzen, ordea, ezpada galderek

sortzen zituzten hausnarketaren ekosistemak arakatzea. Horrela ulertzen baitzuen filosofia Joxek: auziak testuinguruan jarri, gizartearen balio historikoen erroak eta aldaerak kritikoki aztertu eta azaleratu, pentsamendu sistema historikoekin alderatu, hausnarketa psikologiko eta antropologikoa egin, eta pentsamendu sare horretaz hausnartzeko ariketa bezala. Filosofia, pentsamendua-

ren pentsatze erradikal eta kritikoa, esentzialismotik, erredukzionismo tik eta puntu arkimediko guztietatik harago. Filosofia mailukadaka egitea maite baitzuen Joxek, behinola Nietzschek bezala. Ideiak hartzea eta haien jatorria eta ondorioak arakatzzea, zirujauaren zehaztasunaz. Askatasunaren pentsalari bezala, modernitatetik heredatutako dualismo, dogma eta metafisiketatik at askatasuna nola pentsatu aritu baitzen une oro.

Joxe irakasle izan zuen azken belaunaldia izan zen gurea. Bere ikasleak gara, zentzu guztietan. Eta, etenik gabe, belaunaldi berriak ere batu dira bere ur-jauzira. Mundu ikuskera oso bat heredatu digu, mundua interpretatzeko eta munduan egoteko modu bat. Errotiko askatasunaren aldeko jarrera, inkisizio moral eta politikoaren kontrako ikuspegia; erlatibismoaren alde, dogmaren kontra. Tabu gutxi izan baitzituen eta, arinkeriak beteriko garai honetan, haren ekarpenaren sakontasuna eta zabal-tasuna oztopo eta aitzakia bihurtu ez daitezkeen, pentsalari osoaren aldarrikapena egin behar dugu. Inork alboan uzteko tentaldia badu ere, aipaturiko erlatibismoa, biolentzia eta ‘kondenamania’ edota gizakiaren animaltasun ireki guztizkoa bere obraren jatorri eta zerumuga ulertzeko ezinbestekoak baitira. Hegoak ebakita ez da txoririk.

Desesperantzaren lurra jotako belaunaldi batean munduratu zen Joxe. Frankismoaren hertsitasunak eramanez askatasunaren iturriaren bila. Hala, frantziskotar kide zenbaitzuei esker, Arantzazun berreuskaldundu eta Erriberrin, Arturo Campion gidari, abertzaletu zuen



bere burua. Ibilbide horren justifikazioa izango da bere lanaren parte handi baten *leitmotiv*-a; Frantziaren eta Espainiaren batasun sakrosantuen izenean ari direnek aurkakoa badiote ere, nazio kulturala eta nazio politikoa banandu ezinak direla aldarrikatu zuen maisuki. Erriberrik gabe ez da Arantzazurik. Eta alderantziz.

Liburuetako Azurmendi, Azurmendi irakaslea eta Azurmendi laguna pertsona berbera izan dira: zorrotza, iradokitzailea, bere ezagutza entziklopedikoaren tamainako umiltasun eta eskuzabaltasunezkoa. Halaxe eskaini zien Filosofia lizentziatura bukatu gabe zuten bi gazte zorori bere etxea zen “Jakín”-en liburu bat idazteko eta publikatzeko aukera. Eskuzabaltasuna eta emaria, transmisioa eta belaunaldi berriekiko apustua. Filosofiaren arlo nagusi eta egile guztiak arakatu zituen: Antzinaroa, Erdi

Aroa, Errenazimentua, pentsamendu modernoa eta, noski, bertako pentsamendu historikoa ere. Bere iturriak modernoak izan arren, gaur egungo mundu ikuskera dekolonial, feminista eta marxismo berriekin erabat uztargarria da bere pentsamenduaren ekosistema.

«Apunteak hartzen dituen irakurle bat baino ez naiz», esaten zuen behin eta berriz. Baina bere produkzio intelektual bakoitza Euskal Herriaren momentuko gatazka, kezka eta korapiloak pentsatzeko “apunte” entziklopedikoak dira. Ez inor haserretzeko asmoz, ezta inor kontentatzeko gogoz; bai guztiok pentsarazi eta mugiarazteko intentzio osoz eginak. Abertzaletasunaren eta marxismoaren hertsitasunak seinatu zituen, elegantziaz beti. Horrez gain, Euskal Herriaren problemak eta bere “pirata pareak” beste tokietako pentsamenduekin jartzen zituen elkarriketan.

«Euskal Herria krisian» liburuaren aurkezpen ekitaldian, 1999ko abenduaren 16an.
Juan Carlos RUIZ | FOKU

Izango da, horregatik, batzuentzat, pentsalari nazionalista “soil” bat, edo gai “konkretuez” eta ez “unibertsalez” aritu den pentsalari bat. Joxerena, baina, txatalez jositako unibertso aberats, anitz eta oso bat biltzen duen filosofia da.


Herri baten pentsalaria dugu Joxe, pentsamenduaren eta kulturaren aktibista nekaezina. Euskal Herria eta bere pentsamendua subjektu bilakatzeko lagundu diguna, azpiratuaren lekua eta begirada inbertituz. Modernitatearen puskailetan ibiltzera kondaturik gaudela erakutsi zigun eta, gida moduan, mapa andana zirriborratu zizkigun. Kontzientzia eta pentsamendua askatzeko ahalegin etengabea, moral kristauak, estatuaren biolentziek eta dogmek eta metafisikak kateatuta duten gizarte honi askatasun amiñi bat sartzen ahalegindu zen. Baita lortu ere.

Mila esker guztiagatik, Joxe.

{ Zugazart }



u... zer kulpā
Daukat
nik.



JAKIN





Cira CRESPO CABILLO

Historialaria

43º paraleloa

Artxipelago' hitza esaten duten bakoitzean, duela urte asko artxipelago batean nola bizi izan nintzen gogoratzen naiz. Izan ere, gu iparraldeko hemisferioko 43º paralelo inguruan bizi garen gisan, bada hor, hegoaldeko hemisferioko paralelo bikian, beste artxipelago bat ere, hezur-haragizko artxipelago bat. Chiloé du izena, eta agian Mundu Berriko Euskal Herriaren alter egotzat har liteke. Duela hamar urte bizi izan ginen bertan, bi hilabetez. Zorte hura izan genuen. Beste aldeko artxipelago bat ezagutzeko zorte hura.

Artxipelago bat suntsipenaren ondoren nola geratzen den ezagutzeko aukera izan nuen, hezur-haragizko artxipelagoa, alegia. Bide batzuk jada ez ziren existitzen. Basoak hartzen zuen Irla Handiaren parte nagusia. Turistok guztia estaltzen duen oihal baten gainean genbiltzala iruditu zitzaidan.

Egun batez kotxea hartu eta Irla Handiaren ekialdeko ertzerantz egin genuen; Ozeano Barea ezagutu nahi genuen. Itsaso basati hark zergatik duen "barea" izena misterioa da niretzat. Hondartzan abandonaturiko etxeren bat, duela zenbait urteko tsunami baten zantzuak ikusten ziren, han hemen. Kamino kaskarrak hartu genituen eta, bidean, uralitazko teilatuak zituzten etxe-multzo txiki haiek ikusi genituen, batzuetan "herri" esaten zieten etxe-multzo haiek. Guk ez genieken "herri" esango, baina haiek bai.

Ozeano Barearen bazter hartara gerturatzen ari ginela, ondo gogoan dut han ikusi genuen kartel txiki hura: "Pueblo indígena", jartzen zuen. Kartela jarraitu genuen, baina ez ginen inora iritsi. Bidea ertzak galduz

zihoan... edo hobeto esanda, bidea hondartzako hondarrak jaten zuen, Ozeano Bareko hondartza basati hark. Liluratuta geratu ginen olatu handiei begira, eta ez genuen gehiago bilatu. Aterpe zoragarri bat aurkitu genuen, turista sentitu nahi ez duten turistei haien burua engainatzen laguntzen dien horietako bat. Han gizon gazte txilote bat zebilen zerbitzari. Landa-reei buruzko gauzak kontatu zizkigun,

eta pentsatu nuen beste sekretu batzuk izango zituela gordeta.


Bi hilabete egon ginen artxipelagoan. Hain zuzen, gu bizi ginen hirixkan liburutegi publiko bat geneukan, txikia eta goxoa, hango etxe gehienak eta eliza ospetsuak bezala, egurrez egina hura ere. Egur berdez egindako liburutegi atsegina zen, eta bertan aurkitu nituen herri haren historiari buruzko liburuak. Oihalak apurtxo bat



astindu, egurastu, eta gauza batzuk ikasten hasi nintzen.

Liburutegitxo hartan, kapitalismoaz, kolonialismoaz, eta galeraz. Adibidez, jakin nuen uhartean gehien hitz egiten zen hizkuntza bertako herritarrena zela, Amerikako kolonizazio basatienetakoa jasan zuten arren. Konkistatzaile espainolen gehiegikeriak, matxinadak, borrokak eta heriotzak gorabehera, antza, uhartetarren hizkuntza zen nagusi. Hori Txileren independentziara arte izan omen zen horrela. Estatu-nazioen ideia –eta errepresio tresna sorta– modernoak martxan jartzearekin batera, belaunaldi bakar batean ordezkatu zuten jatorrizko hizkuntza eta, gaur egun, guztiek espainolez hitz egiten dute. Hango jendearen hizkuntza, eta beraiek izan ahal zituzten elkarriketak izateko aukerak desagertu ziren, beraz.

Luis Berrizbeitia, Joxe Azurmendi, Arantxa Urretabizkaia, Nemesio Etxanizen senidea, Joxe Mari Aranalde, Itxaro Borda, Iñigo Aranbarri eta Koldo Izagirrea 2000n, Susa argitaletxearen poesia bildumaren harira.
Jon URBE | FOKU



Nola galdu zen hizkuntza hain azkar? Nire hipotesi bat da izenik gabeko hizkuntza izateak ez zuela batere lagundu. Beren hizkuntza nondik zertorren, zer zen, zein zen ere ez zekiten oso ondo. Herri izen garbirik ere ez zuten. Beste modu batera esanda, ez zegoen nortasunik, hau da, ez zen garai modernoek eskatzen zuten nortasun sentimendu argirik eta ahultasun horrekin nola egingo diozu, bada, aurre Estatu-nazio bati, haren izen, abizen, legedi, merkatu eta sinbolo guztien promozioari? Ezinezkoa da.

Irakurri nuen kolonialismoren inguruko lan batean: uhartetarrak bere hizkuntza erabat galduko balu, bere bizitzaren zentzua galduko luke neurri handi batean, eta mundu inperialista baten ertzean dagoen kolonia lizun bateko kide bihurtuko litzateke. Hori gertatu zen, Estatu-nazioaren etorrerarekin batera, Chiloé artxipelagoan.

Edo agian ez? Ziur gaude hizkuntza hori galdu dela guztiz? Oihal osoa kendu dugu? Ziur? Artxipelago horren sekretu guztiak dakizkigula esan dezakegu?

Kontuan izan Irla Handiaren azalera-rik handiena baso itxi batek estaltzen duela. Bide gabeko baso handi-handi bat dago. Bizi ote da inor bertan? Zer bizi ote da bertan? Sinetsi nahi nuke guk ikusi ez genituen kartel txiki hartako “herri indigena” haiek elkar bai, elkar ikusten dutela, eta guk jarraitu ezin izan genuen bide hura ez dela bide galdua, baizik eta bertako biztanleek elkar aurkitzeko ezkutaturiko bideak direla. Beharbada ondo pentsatu nahi dute nola itzuli, nola berregin bidea, baina beren moduan.

Ez hori bakarrik, ugari dira uharteak, hamaikatxo. Zertan ote dabilta urru nenekoetan? Agian, hilabetetan ferry-rik iristen ez den uharte haietan, bada guk ezagutzen ez dugun jendea. Agian, han daukate beren atzeko guardia, eta plan bat pentsatzen ari dira. Beraien artean hizketan ari dira... beharbada.

Espero dut itzuliko direla, beren hizkuntza etorkizunez betearekin. Eta orduan artxipelago hura ez da izango mundu inperialistaren ertzean dagoen artxipelago bat gehiago, baizik eta «mila unibertso txiki diferente, baina edonondik edonora joatea libre —libre itsasoa—, eta irlen artean dialogoa beti bizi-bizi: ez gaur bezala».

1999

EUSKAL HERRIA KRISIAN

Artxipelago bat bagara, polita da artxipelagoa izatea (gu ez bagara ere modu politean etorri horixe bihurtzera). Ez dugu Cayenne bat bezala nahi Euskal Herria larderiatsu, harresiz eta zentinelaz itxi, uniformatu, diziplinatua. Artxipelagoaren politena da, irlak banatzen dituen bera dela batzen dituen ere, itsasoa. Diferentzia da elkarri lotzen ere dituen. Guk ez dugu denok berdin pentsatu, berdin ibili nahi. Euskal Herriak artxipelago bat izaten jarrai dezala nahi genuke, mila unibertso txiki diferente, baina edonondik edonora joatea libre —libre itsasoa—, eta irlen artean dialogoa beti bizi-bizi: ez gaur bezala, diferentziek bereizi bakarrik egiten gaituztela. Inoren eta ezeren absolutismorik gabeko ideien eta asmoen nabigazioa nahi genuke.

1991

GIZABEREREAREN BAKEAK ETA GERRAK

Guk ez bait dugu eskatzen gauza haundirik. Libre izan bakarrik. Guk ez dugu mundu edo ilargi arras berriren batera aspiratzen. Munduaren azkeneko iraultza egitera. Errepublikak unibertsalera eta betiko bakera. Gizadia salbatzera. Kia. Oso iraultza apal bat nahi dugu. Geuretzako iraultzatxo bat, herri txiki batean. Eta txikian, doktrinarismo gabe, zentzu apur batekin, haundian ezinezko esperientziak eta esperimenduak egin litezke, esperimendu bakoitzean milioien bizitzak arriskatzeko. Geure askatasuna probatu. Geure berdintasuna, justizia, sozialismoa. Probatu, aldatu, okerrak zuzendu, berriro probatu.

(...) Estatu haundietan ezin den mila saio sozial proba genezake guk, askatasunean, justizian, lanaren organizazioan, begiratasun poliziakoan, garraioetan, heredentzia eta jabego kapituluetan, urbanismoan, edozertan. Horixe bakarrik nahi dugu. Geure eredua, geuretzat.

(...) Bakarrik, esperimendu horiek egiteko, libre izan behar, lehenengo. Gure libertate txikiarekin. Horretarako, asmo batzuk eta ideia batzuk helburu, bai, behar ditugu: zer behar genituzke, ordea, Inperio alemanean edo errusiarrean ideaturiko teoria haundi perfektuak eta munduaren soluzioa izateko asmatu ziren ideologia unibertsal borobil-borobilak? Geure miseriekin, pertsona libreak izan, pertsonalki ere, horixe dugu beharrena. Zu, ni, beste laguna, ez dugu oso perfektuak ematen, inguruotako hankabikook. Ez gara zaldunak. Egunero ikusten dugu bata bestea, zertxo garen. Halakoxea daukagu hemen historia ere atzean. Geroaldia, ba, geuretzako tamainan egitea nahikoa dugu: Ez daukagu etorkizuna izaki perfektuentzat pentsatu beharrik. Ezta munduari soluzio definitibo unibertsalik zertan bilatu ere: tokian tokikoa beste soluzio eredurik inon ez dago-ta munduarentzat. Gu pixka bat libreago izanez, mundua bera pixka bat libreago izanen da.



Alba GARMENDIA CASTAÑO

Filosofoa

Utopia ezkerreko abertzaletasun aurrerakoia dela zioen filosofoa hil da

Halako transzendentzia batek hartzen gaitu heriotzaren berri izanda-koan. Lizentzia batzuk ematen dizkiogu geure buruari, eta zendu denaren bizitzaz-jardunaz aritzen gara denbora batez, errutinari pausa emanda, aitortza publikoak dolua egiten lagunduko digun esperoan edo. Ez da boutade bat hori, errituak gaurkotzen asmatu ezinik gabiltzan honetan. Libertatezko mito pixka bat aldarrikatzen zuen filosofoa hil zaigu; zilegi bekigu dolu errituei izaera zibil-

dun esangura berpiztea. Zilegi bekigu mito pixka bat sortzea, libertatez. Eguneroko errutinari pausa eman eta bizipenetan atzera eginez, ez naiz ni Joxerekin harreman pertsonal handirik izandakoa, eta hala ere pertsonaletik zerbait baduen gertutasun batek nakar gaur hona: herri-komunitate gisa nor egin gaituen pentsalaria izan da Azurmendi – nor pentsatu gaituena. Berak bakarrik ez, baina berak ere bai. Komunitate horren parte garen neurrian, gutzaritu da, baita Goethez, Weilez zein Marcusez ari zenetan ere. Eta, gutaz

aritu den neurrian, haritxo batek lotu gaitu. Bizipenetan atzera eginez, orduan, harreman pertsonalak baino Azurmendiren testuen irakurketak etortzen zaizkit gogora, eta irakurritakoe-tatik pentsatutakoak, eta momentuan ez baina gerora ulertzen hasitakoak, eta ulertu-uste horietatik sortutako pentsamendu-hari berriak, eta matazak, eta korapiloak, eta nahaste-borraste horretan hariaren puntara itzulita pentsamendua ordenatzen pasatako denborak etortzen zaizkit gogora.

Han edo hemen esan dugu inoiz, Azurmendiri zer ikasi diogun galdetu izan digutenean, pentsatzeko modu bat eskaintzen digula Azurmendiren obrak. Alegia, ez soilik edukia, bere abstraktuan; baizik eduki situatua. Hala, Azurmendik erakutsi digu filosofia ez dela zerbait objektiboki unibertsala, eta batzuetan teoria filosofikoak adinako garrantzia duela teoria (edo teorialaria) inguratzen duen ho-

rrek guztiak. Merezi du zerbait testuei dedikatutako denborak.

Izan ere, zabala da Azurmendiren bibliografia eta askotarikoak izan dira landu dituen gaiak. Horietatik ez gutxi zeharka landu ditu. Ikerlaneko protagonista izan gabe lanez lan errepikatzen den bigarren mailako pertsonaia eza-gun bihurtu ditu hainbat gai. Pertsonaia errepikatu eta lotsati horietako bat izan da utopiarena. Ez dio beren-beregi

libururik eskaini (artikuluren bat edo beste salbuesten badugu, bederen), baina han-hemenka agertu ditu utopiaren gaineko errezeloak eta desirak.

Adibidez, Azurmendiren lanetan konstante bat joera unibertsalizatzaileen kontrako jarrera izan da, eta desiragarri zitzaion etorkizunari dagokionez ere halatsu posizionatu izan da: utopia unibertsalisten okerraz mintzatu da. Euskal Herriaren askatasunaz eta ezkerreko abertzaletasunaz ari zelarik ere, azti ibili izan da erantzun bakar eta erabatekoak emateko tentazioari iskin egiten – “ez daukagu etorkizuna izaki perfektuentzat pentsatu beharrik. Ezta munduari soluzio definitibo unibertsalik zertan bilatu ere”, dio aipuak. Ez du Espainiaren, Europaren, munduaren, salbaziorik nahi, “errepublika unibertsalera eta betiko bakera” ez du aspiratzen; bai, ordea, herri libre batera, perfektua izateko aspiraziorik gabe askatasuna askatasunez probatu nahi duena. Iraultza partikular bat, ez munduaren salbazio unibertsalik. Euskal Herri libre bat, ez euskal utopia perfekturik.

Utopia azurmenditarrek ez du, ez, Tomas Morenarekin zerikusi handirik. Azurmendiren lanean, utopia ez da literatura, historiaren motorra da (ikus “Beltzak, juduak eta beste euskaldun batzuk”). Utopia azurmenditarrek ez du humanismo nonahikorakoaren prentsiarik, herri egiten gaituen komunitate imajinatua da (ikus “Oraingo gazte eroak”). Utopia ez da baserri-giroko tradizio galduaren gorazarrea, ezkerreko abertzaletasun aurrerakoia da (ikus “Ezkerre eta etorkizunaren utopia II”). Garaiko espiritua dago Azurmendiren utopiaren atzean, inondik ere: Frankismoaren aurkako erresistentzia borrokak eta herri-komunitate libre baten askatasun gosea.

Gogoan hartzekoa da; izan ere, 1970eko hamarkadan idatzi zituen utopiari buruzko hausnarketa gehienak Azurmendik; ez gaur. Orduko testuiguruan eta belaunalditik hartzen dute zentzu osoa, beraz. Gaurkotik, ez hainbeste. Gaur utopiak ez du erresistentzia oihartzunik ekartzen. Baina libertatezko mito pixka bat aldarrikatzen zuen filosofoa hil zaigu – zilegi bekigu utopia mitifikatu hau, mundua gure aurrean zabalik dago oraindik eta.



Joxe Azurmendi
2014an, Donostiako
Elkar aretoan,
"Historia, arraza,
nazioa" liburuaren
aurkezpenean.
Gorka RUBIO | FOKU


Lagunei abizenez beharrean izenez deitzen omen zaie. Horrexegatik, akaso, Azurmendiz baino Joxez mintzo dira Kepa Enbeita (Muxika, 1936), Lorea Agirre (Beasain, 1968) eta Haritz Azurmendi (Albiztur, 1991). Gertukoa izan dute hirurek, bai pertsonalki, bai pentsamenduz, baita asmoz ere. Ez alferrik, Jakin-eko kideak dira

hirurak: Kepa Enbeita birfundatzaileetako bat, Azurmendi-ekin batera; Lorea Agirre zuzendaria 2014tik; eta Haritz Azurmendi proiektu ardura-duna 2022tik. Hiru belaunaldi, belauniko egoteari uko egin diotenak. Hiru katebegi, herriaren, hizkuntzaren eta kulturaren katean korapilatuta. Arantzazun elkartu gara, Arantzazulab-eko kideek eskuzabaltasunez eskainitako Gandiaga Topagunean. Euria ari

du goian-behean eta behe-lainoak estali ditu gainak. Azurmendiz, haren ibilbideaz eta euskal pentsamenduaren erronkez patxadaz hausnartzeko aukera paregabea da. **Arantzazun gaude. Kepa, hementxe ezagutu zenuen Joxe Azurmendi.** [KEPA ENBEITA]: Ezagutu Arantzazun egin nuen, baina gehienbat, Erriberrin. Eta gero, askoz gehiago, berriz ere Aran-

*Kepa Enbeita:
«Guri orduan ez
ziguten esplikatzen
ez Marx, ez Lenin, ez
beste inolakorik.
Berak, ez dakit
nondik, baina lortu
eta irakurri egiten
zituen. Hortik bere
burua zabaldu zen,
gurea baino askoz
ere gehiago»*

tzazura bueltatu ginenean. Joseba Intxaustirekin, aldiz, beti izan naiz kurtsoidea. Joxe ni baino bost urte gazteagoa zen, eta kolegioan ez genuen ezagutzen. Joxe hemen zegoela bagenekien, baina besterik gabe. Guk ere oraindik kontzientzia lantzeke genuen. Joxe aintzat ematen hasi zen Erriberrin, nik 18 urte eta berak 13 zituela. Joseba eta biok Erriberrin hiru urteetatik bi egin genituen Joxerekin. Eta



«Joxe Azurmendi garaiko galderak erantzuten eta garaiari galderak egiten aritu da beti»

gero handik Arantzazura itzuli ginen, Joxe urtebete geroago, eta ‘triunbiratu’ hori hemen osatu zen. Fernando Mendizabalek deitu zidan eta esan zidan berak ezin zuela Jakin-ek eskatzen ziona egin. Bera bakarrik gelditu zen, laguntza behar zuen eta nik eman egin nion. Josebari aipatu nion eta baietz. Gero hurrengo urtean Joxe etorri zen eta hari ere egin nion proposamena. Berak orduan ez zuen euskara kontuan edukitzen. Bizpahiru egunez pentsatu ostean, prest zegoela esan zidan. Gero berak aitortu izan du publikoki: «Ni euskarari Kepa Enbeitagatik nago». Nik ekarri nuelako, baina gero berak hori bizitza osoan argi izan du.

Nolakoa zen?

[K.E.]: Laskibar eta abar borrokalariagoak ginen kanpora eta barrura begira. Eta horiek ziren estudiatu eta estudiatu. Adibidez, biok hasi ginen alemana ikasten Erriberrin, baina berak jarraitu zuen aurrera eta nik utzi egin nuen. Gero, guri orduan ez ziguten esplikatzen ez Marx, ez Lenin, ez beste inolakorik. Berak, ez dakit nondik, baina lortu eta irakurri egiten zituen. Hortik bere burua zabaltu zen, gurea baino askoz ere gehiago.

Eta gero, Erriberritik Arantzazura etorri zenean, bi urtez elkarrekin aritu ginen Jakin-eko artikuluak bilatzen, zuzentzen, mekanografiatzen... Baita ere kanpoko erlazioak zaintzen: Gabriel Arestirekin, Carlos Santamariarekin, Ameriketatik azaldu ziren Jokin Zategi eta Andima Ibiñagabeitiarekin, Txillardegirekin...

Eta hor ez zen ez Joseba, ez Kepa, ez Joxe. Hirurok egiten genuen. Sekula ez genuen elkarrekin haserrerik izaten, se-

kula ez genion bata besteari lan bat agintzen. ‘Triunbiratu’ perfektua izan zen. Gero ni aterata nintzenean, urte askotan egunero beraiekin gogoratzen nintzen, baina erlazio guztia galduta izan genuen. Gerora arte ez nuen errekuiperatu erlazio pertsonala.

Behin baino gehiagotan esan dut disparate bat: homosexuala izan banintz beraiekin ezkonduko nintzela, biek batera. Baina gero esaten dut: baina zertarako ezkonduko nintzen, ezkonduka geunden eta! [barrez]

Lorea eta Haritz, zuek nola ezagutu zenuten Azurmendi? Nola hurbildu zineten bere obrara?

[LOREA AGIRRE]: Nik ez dut gogoan, baina berak askotan aipatzen zidan: «Ni gogoratzen naiz zure gurasoak eta zu, ume txikia zinela, manifestazio batean...». Alde batetik, hurbilpen orokor bat dago: Goierri, goierritarra izatea. Eta bestea da Beasaingo gure auzoa, Loinatz auzoa. Horko San Martin eliza frantziskotarra da, eta hor bazegoen lotura bat: ‘Euskal Herria, herrigintza, euskara, hezkuntza, umeak’... Pixka bat progresiaren ideiak zabaltzen ziren, baina aldi berean kristautasun bati eta abertzaletasunari lotuta. Eta Joxe inoiz etorri zen. Baina nik hor oroitzapenik ez dut, oso umeak ginen.

Eta gero nik Joxe ezagutu nuen “Egunkarian” lanean hasi nintzenean. Elkarriketa mordoxka bat egin nion, baina lehenengoa izango zen segur aski “Espainolak eta euskaldunak” liburuaren bueltan. Gogoratzen naiz elkarriketa hura publikatzean egunkarira deitu zuela. Normalean egunkari batera telefonoz deitzen

denean kritikatzeko izaten da: «Titularra gaizki jarri duzu»... Eta Joxe tipo zibiko bat zen, eta esan zidan: «Ze ondo egin duzun...». Horrek bi gauza adierazten ditu. Batetik, berak harreman pertsonalak nola zaintzen zituen. Eta gero nik beti estimatu dudana gauza bat eta errepikatzen saiatu garena: euskalgintzara eta kulturagintzara datorren jendeari harreman bat egitea, leku bat egitea, askotan mundu honetan sartzean ostikoka hartzen baitzaituzte. Beraz, Joxe izaeraz ere beste era batekoa zen.

[HARITZ AZURMENDI]: Gu izango gara pertsonarengana baino lehenago obrara gerturatu garen lehen belaunaldia. Nik uste dut bera pertsonalki nahiko berandu ezagutu nuela. Fakultatean-eta bazebilen, baina ez zitzaigun tokatu irakasle, baja, eszedentziak eta abar hartuta zegoelako.

Nik kasualitate hutsez ezagutu nuen Joxe pentsalari bezala. Pasillo artean nenbilen eta bere bulegoa ikusi nuen, ‘Joxe Azurmendi’ jartzen zena. Eta esan nuen: «Hara, Azurmendi bat filosofo». Eta gero etxean komentatu nuen eta esan zidaten: «Badaukagu liburu on bat berea». Hori batzuek anekdota bezala agertu ohi dute, baino niretzat Euskal Herriaren drama intelektual da: Filosofia ikastera joan eta lehenengo urtea pasa dezakezu Joxe filosofo bezala ezagutu gabe.

Kasualitate horregatik “Espainolak eta euskaldunak” irakurri nuen, eta uste dut mundu bat ireki zitzaidala, edo behintzat nik topatu nuela hor filosofia bat abstrakzioetatik lurrera ekartzeko modukoa: «Aiba, filosofiak balio dezake gureari zuzenean erantzuteko

KEPA ENBEITA, LOREA AGIRRE ETA HARITZ AZURMENDI

Hiru Jakinkide eta jakintsu, Joxe

Azurmendi eta haren pentsamendua

sakon ezagutu dutenak. Zegamarraren

burkide, solaskide, ikerlari eta, finean,

lagunak izan dira.

Mikel URDANGARIN IRASTORZA

eta gainera, nazioarteko pentsamenduarekin lotura eginez». Eta gero, kurtsuak aurrera egin ahala, beti konturatzen nintzen... Ezagutzaren teoria? Joxek seguruena badu 30 orriko testu zatiren bat, gutxi gorabehera dena kokatzen dizuna. Hortik konturatu nintzen pentsamendu bezala arma potente bat geneukala.

Auziak kokatzeko dohain berezia izan baitu.

[K.E.]: Edozein idazlek idazten duenean sozialismoari buruz, marxismoari buruz, abertzale-tasunari buruz eta abarri buruz, ikusten duzu beti daukela linea bat. Eta Joxek ematen dizkizu arrazoiak, arrazoik eta arrazoiak, ispiluan jartzeko, «hau horrela da». Ate guztiak zabalik utzita, baina «hau horrela da, honegatik, honegatik eta honegatik».

Arantzazuren bueltan ibili ginenean, Joxek ez zigun erakusten, baina praktikaz ikasten genuen, gauza nola analizatu, nola sakondu... Analista izan zen, kristoren laburpenak egiten zituen. Adibidez, Jakin-en inguruan biltzen ginenean, Euskal Herriko hogeia eta piko fraiderekin, beti eztabaida zen euskara nolakoa. Orixetarrak eta Orixeren kontrakoak. Joxek dena entzuten zuen. Besteok ere bai, baina ez genekien sustrairik ateratzen, edo nola erantzun... Joxek horiek denak hartu eta han idatzi zuen “Zer dugu Orixeren alde?” eta “Zer dugu Orixeren kontra?”. Bata eta bestea. Hori erakutsi zigun Joxek: artikulua idazten eta arrazoitzen. Praktikan, ez maisu bezala.

56ko belaunaldiaren baitan ulertu behar da Azurmendi. Zuen ustez, zeintzuk izan di-



ra belaunaldi horren ekarpen nagusiak?

[L.A.]: 56koa esaten dugu pixka bat biltzeko urte bezala: Jakin sortu zen urtea, Ekin sortu zen urtea, Jose Antonio Agirre lehendakariak Parisen Mundu Biltzarra deitu zuen... Horrelako gertaerak egon ziren. Eta hor Joxek berak esan zuen: zer gertatzen da herri batek bere nortasunaren edo identitatearen oinarrian, arrazaren orde, hizkuntza jartzen duenean? Balio sistema osoa aldatzen da. Alegia, ontologia osoa, epistemologia osoa... Pasatzen gara esentzialismotik ez-esentzial izatera, praxi kolektibo eta proiektu baten baitako gizagintza, herrigintza eta kulturgintzara... Eta horrek aldaketa oso bat dakar. Eta aldaketa hori ondoren gauza asko ereiteko zoru edo lur emankorra da. Baita feminismoa ere aurrerago. Planteamendu irekia delako, edo egintza batean oinarritua. Eta gainera, munduarekiko elkarriketan: dekolonialitatearekin, Fanonekin, marxismoarekin, Europako beste pentsamendu filosofiko ba-

Lorea Agirre: «[56ko belaunaldiarekin] pasatzen gara esentzialismotik ez-esentzial izatera, praxi kolektibo eta proiektu baten baitako gizagintza, herrigintza eta kulturgintzara... Eta horrek aldaketa oso bat dakar, ondoren gauza asko ereiteko lur emankor bat»



tzuekin... Ez gure burutxoari begira, baizik eta garaiko galderak eginez eta garaiko galderei erantzunez. Niretzat hori da aldaketa nagusia, eta uste dut paradigma aldaketa hori gaur egun arte iritsi dela.

[H.A.]: Eta horrek produktu batzuk eman ditu. Adibidez, euskara batua garbizalekeriaren kontra sortu zen, esanez: «Guk zinema ekarriko dugu, baina ez Sabino Aranaren euskarazko sorkuntza horretatik, baizik eta Europako erro latino horretatik». Eta horrek kokatzen gaitu kulturalki Europako giro horretan. Nik uste dut Orixerekin-eta borroka horixe zela: Orixek euskara Europako haizeetatik babestu nahi zuen, eta Joxek-eta ireki.

Balio sistema aipatu duzu. Horri lotuta, jakin adibide bezala jarrita, «segidak daude eta etenak daude» zioen Azurmendik. Zeintzuk dira segida eta eten horiek?

[L.A.]: Bai, etenak eta segidak daude, baina berak eten bat nolabait segida bat dela ere esan zuen. Eta egia da, eta us-

te dut hori esaten zuela 56ko belaunaldi horri begira ere. Hor errelato bat dago: «Erat bat eten zen aurrekoarekin». Eta eten zen eta ez zen eten. Eten zen, alde batetik; zurztasun bat aitortzen dute beraien basamortu horretan. Baina gero berreskuratu egiten da. Eta nik uste dut hemen gerora ere belaunaldi diferentek hori egin dutela.

[H.A.]: Joxek esan zuen: guk eten bezala bizi ditugun gauzak hurrengo belaunaldiek seguruen segida bezala ikusiko dituzue. Eta zu Lizardiren testu politiko eta euskaltzaleetara bazoaz, han hizkuntza kontzientzia dago. Beste gauza bat da hizkuntza kontzientzia hori janzten duen unibertso guztia askoz kontserbazionistagoa dela, edo helburua dela ‘galdutakoa berreskuratzea’ edo orain dagoena babestea. Eta horrekin, bai, hautsi zuten Joxek eta gainerakoek, esaten zutelako: «Modernitatean zehar puskatutako subjektu bat bagara, gotortze moderno horiek ez digute balio, guk beste zerbait egin behar dugu». Nazioa egin egiten da.

‘Zergatik eta zertarako euskaldun’ polemikaren muina hori da: auzia ez da euskaldun izan behar dugun edo ez, edo borroka horrek merezi duen edo ez, baizik eta guk borroka horrekin zer egin nahi dugun, zertarako lotu behar dugun borroka horretara. Eta haserretzen zitzaizkion guztiak, Jon Juaristi eta Mikel Azurmendi, eta Xabier Lete eta horiek ere: «Hau zertan ari da jada ebatzita guzuekin! Ni akzidentalki euskaldun jaio naiz eta horregatik ari naiz euskararen alde egiten». Eta Joxek dio: «Niri berdina zait zu pertsonalki nola jaio zaren, edo ez, adibide edo ibilbide pertsonalak mila dau-

de. Niri axola zait gu zein borrokatara lotuko garen euskararen bitartez». Eta nik uste dut hor beste naziotasun bat irekitzen duela, eta etena hor dagoela. Ez hainbeste hizkuntzan, esan dugun irekitasun horretan baizik.

Irekitasun hori probestuz, feminismoarekin segidak josten saiatu zara, Lorea.

[L.A.]: Nazioa eta feminismoa lotzea kosta egin da. Kosta egin da ulertzea nazio proiektu guztiek sexu genero sistema ardatz nagusi bat izan dutela aldi oro, eta guk geuk eraikitzen ditugun askapen prozesuetan ere ardatz horrek eragiten segitzen duela. Hor-taz, feminismoaren eta naziotasunaren arteko elkarriketa posible bat egiteko bidea egin du euskal feminismo batek, eta horretarako Joxe baliagarria izan zaigu.

Izan ere, esandako paradigma aldaketa horretan sustrai batzuk botatzeko aukera ematen du. Badaude ernamuin batzuk oso antzekoak, beste leku batetik eta beste zerbaitetarako pentsatuak, baina balio digutenak. Lehenik, gizaberearen kontzeptua, gorputzaren kontzeptua: feminismoak asko landu eta erdigunera ekarri du hori, mendeetan zehar emakumea erreproduzituko zuen gorputz bat zela kontsideratu baita, adimen gabeko gorputz bat. Eta Joxeren giza-berearen ulerkeran arrazionaltasuna eta aberetasuna batera doaz. Baita kolektibotasuna eta taldetasuna ere. Erlatibismoak ere balio digu: Donna Harawayk 'jakintza kokatua' deitu dio, mundua gure begietatik eta gure esperientziatik esplikatutako beharra. Berdin, dekolonialitatearen auzia. Gaur egun feminismoan erabat ire-

kia dago, baita talkan ere, eta 56ko belaunaldiak erro batzuk eman dizkigu hori ulertzeko.

[H.A.]: Azkenean feminismo garaikideak, hizkuntzaren aldeko mugimenduak edo dekolonialitateak modernitatearen irakurketa kritiko bat dute oinarrian. Eta genealogia egiten aritu ginenean atzera begira, esaten genuen: Angela Davis eta Joxe belaunaldi berekoak dira. Batek gehiago egin du hizkuntza eta kultura eta nazioaren aldetik, bera eta bere belaunaldia horrek zeharkatu zituelako. Eta Angela Davisek ez, AEBetan auzi hori bi mende lehenago ebatzita zegoelako, indiar guztiak akabatu zituztenean. Beraz, auzia da non aplikatu modernitatearen irakurketa kritiko hori.

Azkenaldian, Azurmendik berak ere iradoki izan zituen feminismoarekiko lotura horiek. 2019an Txillardegiz idatzitako artikuluan, esaterako.

[L.A.]: Bai, Joxe ez da ibili duela 30 urtera arte osatutako ideiekin segi eta segi. Aitzitik, irakurri eta esan du: «Orduko euskararen aldeko uhina gaur egungo feminismoaren aldeko uhinaren antzekoa da». Eta nolabait biak parekatu ditu: hizkuntzaren eta feminismoaren borrokak zertara eramango gaitu gu kolektibo bezala? Nondik engaiatzen gara borrokara? Berdintasunaren aldeko borrokaren manifestazio diferenteak direla dio, esplizitatu beharrekoak. «Harremantasun gurutzatuen

unibertso bat» aipatzen du testuan; hori intersektionalitatearen definizio bat da.

Beraz, horrek esan nahi du Joxe, beti bezala, garaiko auziekin eztabaidan ibili dela. Eta hori altxor bat da, hori egin gabe utzi zezakeen eta. Baina egin du, *continuum* bat eraiki nahi izan duelako.

Haritz, zuk Azurmendiren nazio kulturala ikertu duzu. Zeintzuk dira Azurmendik eskaintzen dituen gakoak?

[H.A.]: Nik uste dut nazioen inguruan genealogia kamuts bat jaso dugula oinordetzan. Ni masterrera joan nintzenean, normalean tesia hauen: «XIX. mendera arte ez zegoen naziorik, horiek nazionalisten askakuntzak di-

ra. Eta XX.etik aurrera ez da halakorik egongo, globalizazioa etorriko delako eta nazioak zentzua galduko duela. Eta beraz, XXI. mendean nazioaz arduratzea nazionalista batzuek eutsi nahi dioten zerbait izango da». Nabardurez edo nahi duzun bezala, baina hemen oraindik ere eskema horrek eragiten jarraitzen du. Gero autore horiek (Hobsbawm eta abar) irakurtzen hasten zarenean, mundu guztiak esaten du: «Ez dugu esaten etnia edo kulturak desagertuko direnik, esaten dugu beste forma bat hartuko dutela». Eta Joxek honako hau dio: «Eta zergatik murriztu nahi duzu nazioaren kontua XIX. mendeko forma konkretu horretara, beren burua nazioztat hartu duten gizataldeen bilakaera askoz aberatsagoa bada?». Alde batez edo bestez, XV-XVI. mendeetatik hitz egin da horri buruz, Berpizkundetik; beraz, ikus dezagun nola hitz egin den.

Eta hori egiten duzunean ikusten duzu garaiko testu inguru sozial eta politiko, klase, genero eta horren guztiaren arabera nazioen inguruko diskurtsoak produzitu dituztela, eta gaur egun ere hala egiten dela. Eta zuk produkzio hori uko egiten badiozu, zureari, eremu ikaragarri bat oparitzen ari zara.

Gaur egun nola egin daiteke produkzio hori?

[H.A.]: Orain berrikuntza aipatzen da askotan. Eta horren estrategia hau da: bila dezagun ahalik eta sorkuntza kultural estranbotikoena, horrek zabalduko digulako mira. Eta konturatzen zara sorkuntza kultural normal eta anormal guztiak egon daitezen, fun-



tsean egitura batzuk behar dituztela, 56ko belaunaldiaren pentsamendua erreproduzituko dutenak edo idazle eskolak martxan jarriko dituztenak. Eta nik uste dut Joxeren belaunaldiak hori oso argi zuela, 80ko hamarkadan instituzionalizaziora ere iritsi zela intuizio hori, eta gaur egun egituraz pentsatze hori oso galduta dagoela. Eta nik esango nuke galdera egokiak horiek direla Joxeren obran: XXI. mendean naziotasuna edo gure kultura zein egituraren bitartez erreproduzituko den, eta ez zein emaitza arraro eman dezakeen»

Gaur egun, zer da hori? Nola bermatuko dugu euskalduntasunari buruzko diskurtso gehiago egotea, Arabatik eta Alkizatik ere egotea, eta horiek irismen edo oihartzun maila bera izatea? Horrek eramaten zaitu idazle eskola sistema publiko bat nola antolatu, Youtuber eskola sistema publiko bat nola egin edo EiTBren funtzioa zein den galdetzeraz.

[L.A.]: Hori da. Nazioaz eta aberriaz pentsatzea nazioa eta aberria pentsatzea eta horri praxi politiko edo kultural bat ematea da. Hori galdu ezin dugun eremua da; ikuspegi abertzale batetik begiratuta, behintzat. Bestela, ekimen solte, indibidual, sentimental, exotiko... moduko bat bihurtzen da, baina ez euskal nazioaren testuinguruan, beste nazio batean bainik.

Momentu honetan nazio eta estaturik gabe ezin gara bizi. Hori ebidentzia bat da. Hau ere Joxek mila aldiz errepikatu du: gu omen gara etnikoak, hizkuntzarekiko kapritxo-soak.... Eta dioenez, «guk zuek eskatzen duzuen gauza bera eskatzen dugu». Kito. Gurea

Haritz Azurmendi:
«Nik esango nuke
galdera egokiak
horiek direla Joxeren
obran: XXI.
mendean
naziotasuna edo
gure kultura zein
egituraren bitartez
erreproduzituko
den, eta ez zein
emaitza arraro
eman dezakeen»



txarra bada, zuena ere bai. Berdindu gaitezen eta gero abolituko dugu abolitu beharrekoa.

Iruditzen zait Joxeren lana Euskal Herriaren nazioaren defentsa bat egitea ere izan dela, azpiko gezur eta irain guztiak behin eta berriz argitaratzea.

Eta hori egiteko elkarrekin zenbat lan eta borroka, Kepa!

[K.E.]: Bizi egin dugu. Nik sentitzen nuen zerbait egin behar zela. Baina espetxetik atera eta gero, ezin nuen ezer egin, oso zelatatuta nengoe-lako. Eta gau eskolak ematen hasi nintzen. Baina nik ez nekien ezer. Ekonomiari, hizkuntzari eta bestelakoei buruz argudioak bilatu nahian estudiante batzuk biltzen nituen, baina gero hitz egitera ni joaten nintzen, ez beraiek! Eskema batzuk egin eta eskema horiekin ibiltzen nintzen herriz herri, nik neuk ulertzen ez nituela.

Gau eskola haietan konturatu nintzen: zertarako idazten dugu bata eta bestea, ez dakigu-eta irakurtzen! Eta orduan jendea alfabetatzen hasi nintzen. Eta badakizu nortzuk etortzen ziren klasera? Jose Antonio Arana Martija Euskaltzaindikoa eta bere familia osoa; ETako hilak izan direnak; nire familiakoak, enbeitarrak... 40 bat herritan ibili nintzen.

Egun batean Ricardo Arregi etorri zitzaidan, Euskaltzaindian sutan zeudela esanez. Zergatik? Axular irakatsi beharko litzatekeelako. Eta nik erantzun nion: «Ricardo, Axular ulertzea hiri eta niri ere kosta egiten zaiguk». Guk Aita Imanol Berriatuaren «Anaitasuna» aldizkaria erabiltzen genuen. Edo nik ipuin batzuk idazten nituen eta horiek erabiltzen genituen.

Orduan Joxe nik aldamean behar nuen, nik eta beste batzuek. Gu familiatik eta ingurutik abertzale ginen, baina abertzale izatea zer zen ez genekiela: bizi genuen, baina nola arrazoitzen dut hau? Sentimendu bat zen, baina hori argudiatzen ez genekien. Eta Joxek horri argudioak bilatu zizkion. Eta, gainera, mundu guztia inplikatu zuen, bakoitzak horretaz zer zioen bilduz. Horrek niretzat

kristoren meritua dauka eta zabaldu egin behar da.

Hain zuzen ere, nola zabaldu daiteke hori aurrera begira? Zeintzuk dira, zuen ustez, euskal pentsamenduaren erronkak?

[L.A.]: Joxek idatzita dauka: munduari esplikazio bat ematea, geuretik; pentsamendu ez-dogmatiko eta kritiko bat garatzea, baina geure burua eta mundua ulertzeko geure



esperientzia legitimatuz. Uste dut hori izaten segitu behar duela euskal pentsamenduak, edo borroka horri heldu behar diola oraindik ere, hori eztabaidatu egiten da-eta oraindik.

Eta gero erronka zehatza? Garaiko galderak egitea eta garaiari galderak egitea; ez bakarrik garaiak jartzen dizkigunak, garaiari ere galderak egin behar dizkiogu eta. Eta hori zertarako? Ez dakit oso ondo nola gauzatzen den, baina nik

uste dut inportantea dela euskal pentsamendua bizitzarekin lotzea. Ezin da izan hor da goen gauza bat. Bizi egin behar da, sentitu, eta hobeto bizitzeko balio behar digu: geure burua eta komunitatea ulertzeko, etorkizunari begirada bat bota ahal izateko... Nolabait, feminismoaren arrakasta da feminismoak zure bizitza esplikatzen duela, zure mina, zure auziak... pertsonalak eta kolektiboak. Naziogintzak, euskal

Kepa Enbeita: «Bizi genuen, baina nola arrazoitzen dut hau? Sentimendu bat zen, baina hori argudiatzen ez genekien. Eta Joxek horri argudioak bilatu zizkion»

pentsamenduak eta hizkuntzak ere horretarako balio behar digute.

[K.E.]: Nazio bat ez da ezer. Nazioa pertsonak dira, eta pertsonak egiten dute. Pertsonak elkarrekin erlazionatzen dira eta elkar ulertzen dute hizkuntza baten bidez. Eta nazio edo gizatalde bakoitzak diferente antolatzen ditu bere elkarkidetasunak. Nik asko jotzen dut ohitura zaharretara, ohiturak pertsonak elkar zaintzeko eta babesteko gauzatutako estruktura izan baitira. Eta horiek, berez, legeak dira: eginez, eginez eta eginez, ohitura bihurtu direnak, alegia.

Gaur gure herriko egitura administratiboak ez daki bere herria zer den, ez ditu bere herriaren egiturak ezagutzen. Madril zentralista da, bai, baina guk ere geure herrian dena zentralizatzen dugu: denak xurgatu dituzte eta batean sartu, eta lege baten barruan jarri. Baina, kontxo, legea gu ginen! Herri honek, aurreko gizaldia- ren erdi ingurura arte, bizi-bizi izan ditu ohitura horiek. Industrializazioa etorri zenean, jende gehiena baserrikoa zen, joan ziren lanera, eta horiek denak 'zaharren kontu' bezala utzi ziren. Baina horiek bizitza bat dira, elkar-erlazio bat dira... eta batzuek lan egin dugu horiek biltzen, berriz bizitza ematen. Eta hori egin ahala gobernuari esan behar diogu: «Guk ez dugu zuen beharrianik». Egitura horiek hemen funtzionatu dute herri guztietan eta milaka gauza daude, inori ezer eskatzen ez diotenak eta lehenengo oinarriak direnak. Horixe da gure herriaren pentsaera, edo gure herriaren pentsaeraren garapena, eta horra joatea ez da

antzinara joatea, baizik eta hori eguneratzea.

[H.A.]: Euskal pentsamendua garatzeko, gaur egungo pentsalariei ezikusia ez egitea da oinarria, etena bigarren aldiz heredatu ez dadin. Joxek eta gainerakoek ezin izan zuten aurrekoekin egin, ez zegoelako testurik eskura, zentsura zegoelako, harreman pertsonalik ez zegoelako... Guk hori ez daukagu. Guk lehen esandako errelato hori daukagu: «Gaur egun gauza horiek atzera geldituta daude. Eta, beraz, horretaz interesatzen bazara, ideien historialaria zara». Horrekin puskatzea dagokigula iruditzen zait, eta ez bakarrik Joxerengan interesa dugunok. Besterik gabe, naturaltasunez, Angela Davis bezala Joxe ere irakurtzea. Oso gauza oinarrikoa da, baina ez da egiten. Eta ez da egiten aurreiritzi horietatik, herri minorizatu edo ez-hegemoniko baten aurreiritzietatik: zure pentsamenduak besteenak baino gutxiago balio duela pentsatzetik.

Eta gero, egituragintzan edo kultur munduan, ezagutza eta eskuragarritasuna bermatzeko premia ikusten dut. Adibide oso tontoa da, baina nik tesia lau urte eta bi egunetan egin banuen Jakin-en urtebeteko lana kendu zidatelako da, bere pentsamendu eta obra osoa dokumentatu zutelako eta hor jarri zutelako; bestela, gutxienez, urte erdi lan hori egiten pasatu beharko nuen. Jakin-ek bide hori intuizio handiz hasi zuen, baina apustu sendo bat egin behar da. Joxeren Liburutegi Nazionalaren ideia- ren atzean ere horixe dago: jar dezagun hemen eskura eta guk erabakitako kategorietan sortu dugun liburugintza, pentsamendua eta beste.



Joxe



**Joana
GARMENDIA
MUGICA**

Kalea sutzen denean, Filosofia fakultatea izango da berotzen lehenengoetarikoa. Gurea ondo epel zegoen laurogeita hamarrek markadan. Atze-oihalaren parte ziren eztabaidak, sesioak, bizkartzainak, grebak, eguna hausten zuten albisteak, eta bi alde ondo bereiziak, zuri edo beltz. Zioten ginela espainolak eta euskaldunak, demokratak eta biolentoak. Kaleko haizeak harrotzen zituen fakultateko korridoreetako hautsak eta suak.

Joxeren berri bagenuen fakultatera sartzerako, eta batzuek irudikatzen genuen zuri-zuri eta besteek beltz-beltz. Pulpitutik hitz egingo zigun gizon bat

sutan. Baina lehen eskola egunean aurkitu genuen gizon txiki bat, irribarretsua, atsegina, ahotsik goratzen ez zuena, presentzia lasaikoa, interesez entzuten ziguna eta esateko asko zeukana. Filosofia modernoa irakatsi zigun.

Kontatu zigun gaixo zegoela, gaitzak hartua zuela, baina ez zuela hiltzeko asmorik. Medikuek ireki zutela eta handik kendu, hemendik konpondu, txukun itxi zutela bueltan. Alemaniari buruz hitz egin zigun, eta Zegamako euskara galdu izanak tristatzen zuela esan.

Molde klasikokoa zen eskolak ematen, ez zuen gaur horren modan dauden praktiken eta talde lanen eta IKT erduen beharrik saioari eusteko. Astearte

arratsalde izaten genuen eskola, lau orduz jarraian, eta gela betetzen genuen halere, zintzo. Eskolak ematen ordenatua zen, argia, saiatua. Astero-astero zerbait idazteko eskatzen zigun, eta astelehenerako uzteko bere buzoian: azaldu ziguna ulertu genuela ikusi nahi zuen.

Irakatsi zigun filosofia egiten dela poliki, paragrafo bera behar adina aldiz irakurriz, galdetuz, pauso bakoitza ulertzen saiatuz, pentsamendu kritikoz, txikiaren umiltasunez. Alferrikakoak direla diskurtso haizatuak eta mami gutxiko hitz potoloak filosofian. Harekin ulertu nuen Kant lehenengoz, horrekin gogoratuko dut beti. Oso irakasle ona zen, gutxi izan genituen gisakoa. •

Pentsamendua herriaren zerbitzura



**Markel
OLANO ARRESE**

Filosofia ikasketak Zorroagan hasi nituenean, deserosotasuna izan zen nire sentipen nagusia. Ez nuen lortu ikasle talde egonkor batekin harremana sendotzea, eta hainbat irakaslerekin konektatzea ere zaila egin zitzaidan. Argi dago 80ko hamarkadako giro politiko nahasiak ez zuela horretan lagundu (EGIko militantea nintzen...). Hor ezagutu nuen Joxe. Hasieratik irudititu zitzaidan pertsona apala eta goxoa; aldi berean, filosofia alemaniarrean sakontzeko zuen joerak nire mugez jabetzen ikasten lagundu zidan (ikasgelan Kant-en Judizioaren Kritika irakurtzerakoan, adibidez).

Joxe gerraosteko belaunaldiaren bururik argiena izan zen. 36ko gudak era

basatian eten zuen gerra aurreko loraldiak dogmatismo integrista gainditzeko abian ipini zuen modernizazioa. Belaunaldi hori errautsetatik burua altxatzen hasi zenean, segituan etorri zitzaion belaunaldi berria, modernizazio prozesua marko ideologiko guztiz desberdin baten bidez burutzen. Eliza katolikoaren dogmatismotik ihesi, belaunaldi gazteak dogmatismo marxista besarkatu zuen kasu askotan. Ez, ordea, Azurmendik. Joxek bere obra osoan zehar egin dio aurre dogmatismoari, eta honek gaurkotasun handia eskaintzen dio bere pentsamenduari.

Azurmendiren obraren beste ezauzgarri funtsezkoa euskal nazioari buruzko hausnarketa dugu. Hau ere gaurkotasun handikoa. Munduan eus-

kaldunok izan behar dugun toki propioa era nekaezinean sendotzen saiatzen da Joxe. Frankismoak gure herri izaera suntsitzeko ahalegin sistematikoa egin zuenean errazagoa zen, seguruenez, lan hori. Mundu globalizatuan kultura hegemonikoek gure herriaren disoluzio isilari ekiten diotenean ez hainbeste. Nolanahi ere, kultura hegemoniko horien tresna besterik ez den pentsamendu “kosmopolitari” Joxek egiten dion eraispena inoiz baino beharrezkoagoa dugu.

Gure herriaren biziraupena bermatzeko oinarritzko lezioak eskaintzen dizkigu Joxek. Euskal tradizio politikoek berez dituzten joera zentrifugoei aurre egiteko oinarri komuna ezartzen du. Herria, hizkuntza, justizia, askatasuna. •

Xabier MENDIGUREN ELIZEGI
Elkar-eko editorea

Aitagure bat Joxeren alde

Garai batean, gogoko idazle bat hautatzeko galdezten zidatenean, ez nuen izenik ematen, ezin nuela erantzuten nuen, hainbesteren artean bakarra aukeratzea ezinezkoa zelako eta nire lanbideagatik itsusia litzatekeelako ere bai. Baina, duela urte batzuk, ohitura aldatu, eta idazle-izen bat esaten hasi nintzen halakoetan, beti berbera: Joxe Azurmendi. Ez zen pentsatutako erabaki bat izan, baina, horretaz go-goeta egiten jarrita, hainbat arrazoi eman nitzakeela bururatzen zait orain.

Joxe Azurmendi izan da nik ezagutu dudana gizonik jakintsuena, beste edonorekiko alde handiz, ikaragarritz. Izango dira bera bezain jakitsuak edo jakitsuagoak ere, baina ez zaizkit parean egokitu. Ez naiz hasiko jakituria erraldoi, txundigarri, adarretatik infinitura zabaltzen zen horren adibideak ematen, motz geratuko nintzatekeela iruditzen zait eta. Baina bai esan nahi dut jakituria baino are handiagoa zuela bihotz eta eskuzabaltasuna, enpatiarekin konbinatzen zuen hurkoarekiko interes natural bat, faltsutik ezer ez zeukan apaltasun jator bat.

Talentu apartaz jaio den batek ezin du horren berri ez izan, baina bere umiltasunaren marka zen dohain hori beti besteen zerbitzura jartzea. Langile nekagaitza izan zen, azkenaldian gaitzak guztiz menderatu zuen arte, eta beti kontsideratu zuen bera euskal kulturaren aldeko behargin xume bat zela, bere ahalmenak eta ahaleginak horren alde emango zituen, zintzotasun eta kemen erabatekoz. Horren adibide dira bere biografia oparoko tituluak, asko eta asko honek edo beste horrek eskatuak, kausa noble honentzat edo beste horrentzat.

Berarekin berbetan, harrigarria zen zenbateraino zen pertsona ez-dogmatikoa, zeinahi arazoren alderdi guztiak ulertzen zekiena; baina bera, hala ere, busti egiten zen, baita zikindu ere, Jakintzaren dorre bolizkoan gorderik gera zitekeen ere. Eta bustitze horretan ez zuen ez kalkulu partikularrik, ez printzipio potolorik erabiltzen, intuizio xehe batzuk baino: euskal andre-gizon arrunten aldeko jarrera garbia, eta euskal kulturaren eguneroko lanean ari zirenenanako atxikimendu erabatekoa. Eta sen horrekin, esango nuke historiaren alde egokian paratzen asmatu zuela beti. Elizak gizartearen eta kulturaren kontrol totala zuen gizarte batean sortu eta hazi zen, eta hortik urruntzen asmatu zuen, ausardiaz. Marxismoak pentsamendua kolonizatua zuen sasoi batean eman zituen gaztaroko urteak, eta errespetuz bezainbateko eza-gutzaz harremandu zen mugimendu ez-kertiarrekin, totalitarismoari itzuri eginez, hala ere. Munduak hainbeste buelta eman eta gero, berarentzat ezkertiarra izatea, gaur, zertan zetzan galdetu nion behin, eta ez berba hanpaturik ez definitio biribilik ez zuen erantzun ximple hau eman zidan: pertsonarentzako askatasun eta berdintasun pixka bat lortzea. Ez litzateke gutxi, gauzatzerik izango bagenu. Azken urteetan beste mugimendu bat ari

da indar hegemonikoa hartzen gurean: feminismoa. Eta ez dakit konturatu zareten, nolako argikusmena eta eskuzabaltasuna erakutsi zituen Joxe kide zuen taldeak, Jakin-ek, frantziskotar abitudun izandakoen aldizkaria eta ondare sinboliko guztia feminista euskaltzaleen talde baten esku uztean.

Artikulurako tartea amaitzen ari zait, eta irudipena dut ez dudala oraindik ezer esan, beste mila kontu geratzen direla esateko: edonori laguntzeko zeukan prestasuna, arteak oro har (musika, pintura, arkitektura eta, bereziki, literatura) ulertzeko eta preziatzeko sentiberatasuna, familiarekin eta lagunekin izaten zuen goxotasuna, denekin erakusten zuen umore ona, bere ikasleengan utzitako inpronta eta lorratz ezabaezina, munduko hainbat bazterretan bizi izandako intelektual poliglotak bere sorterriko hizkera eta jendeekin zeukan lotura, idazkera zoragarria, analisisen zorrotza... Guztion besoak zabalduta ere ezin bera zen zuhaitz jigantearen gerria inguratu.

Jainkorik egon, ez dagoela esan ohi zuen Joxek, baina transzendentziarekiko sentimendua zuten gizabere txoen keinuak maitatzen eta aintzatesten zituen. Horregatik amaitu nahi dut aitagure bat eskatzen aita moduko bat izan dugun Joxe Azurmendiren alde.



Joxe Azurmendi eta Xabier Mendiguren, 2000n, euskal erbestearen inguruko hitzaldi batean. | Jon URBE | FOKU



Iñaki ZABALETA GORROTXATEGI
EHU - Joxe Azurmendi Katedrako zuzendaria

Euskal Herriarekin konprometitutako pentsalaria

Jakin berri dugu Joxe Azurmendi ez dagoela jada gure artean. Alde batetik pena sentitzen dugu halako iparrorratz eta bidelagun bat galdu dugulako; baina beste aldetik poza ere sentitzen dugu bera ezagutzeko eta berarekin lan egiteko aukera izan dugulako. Zalantzarik gabe esan dezakegu pentsalari emankorra eta oparoa izan dela: horren lekuko dira utzi dizkigun 40 liburuak eta 600 artikulatuak. Ez da hitz egiteko modu bat bakarrik: bere irakurleak garenok beti joan izan gara bere atzetik, alegia, bera harrapatu ezinik. Baina garrantzitsuena ez da kantitatea, baizik eta kalitatea. Berak ez du bakarrik asko idatzi, baizik eta ondo eta sakon ere. Bere obra, beraren edukiari begiratuz gero, nazioarte mailakoa da; bestela esanda, puntako pentsalari onenen parekoa. Horregatik guztiagatik sortu genuen 2019an Joxe Azurmendi Katedra, non bat egi-ten duten Euskal Herriko Unibertsitateak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Jakin Fundazioak. Berak utzitakoa altxor bat da eta, egiaz, baliotsuegia da lurrazpian uzteko.

Zerbaitek ezaugarritu badu Joxe, bai bere bizitzan bai bere lanean, Euskal Herriarekiko bere konpromisoa da. Lan egiteko bizi izan da eta bizitzeko lan egin du, inolako arazorik edo tentsiorik gabe, oroz gain bere Euskal Herria maite zuelako. Gaitasunak sobera zituen dominak eta medailak irabazteko, baina berak formari baino gehiago begiratu dio funtsari. Eta hortik datorkigu bere mezu garrantzitsu bat: euskal kontuak dira eta, egiaz, erabakigarria ez da itxura egitea, baizik eta mamia lantzea. Horregatik idatzi du Joxek ia dena euskaraz, preseski, euskara ez dugulako ingelesez salbatuko, ezta

espainieraz edo frantsesez ere. Eta horrek prezio bat izan du, baina berak gustura ordaindu du hori, hain zuzen, koherentzia ezer baino gehiago baloratzen zuelako. Bera euskararekiko konpromisoa izan da, hobe,

euskararen herriarekiko konpromisoa: hizkuntza ez da ezer hiztunik gabe, euskara ez da ezer euskaldunik gabe. Horregatik hitz egin dezake euskaldunon eskubide moralez, hots, gure eskubide linguistikoek. Jo-



xekek gauza bat erakutsi digu, hots, gure txikitasunean ere gure duintasuna landu behar dugula. Inork ez ditu gure etxeko lanak egingo eta, horretan, norberaren zilborrari baino gehiago taldeari berari begiratu behar diogu. Talde kontzientzia eta talde ekintzarik gabe ez dago ezer!

Joxe bera taldeko gizona izan da, zehazki eta bereziki, Jakin historikoa-ren taldekidea: gogora ditzagun J.M. Torrealдай, J. Intxausti eta P. Agirrebartzategi. Baita Txillardegi eta P. Izutueta ere. Horiek denak, eta beste batzuk, 56ko belaunaldiarekin lotzen ditugu. Modu batean edo bestean, eta gogoratu diktadura frankistaren

Ur-jauzia pixkanaka ari da bere bidea egiten. Argazkian Azurmendiren pentsamendua zabalduz Jakin-ek Tolosan egindako murala.
IKOR KOTX

erdian zeudela, horiek denak bat etorri ziren zer baitetan: euskal hizkuntza, euskal kultura edota euskal pentsamendua landu behar dira, bai edo bai, baldin eta Euskal Herriak etorkizuna izango badu herri bezala. Eta horretan guztian Joxek aparteko ekarpena egin du, besteak beste, garai bateko euskal idazleak aztertuz eta horiek Europako beste idazleekin erkatuz. Horrela lagundu digu ulertzen zer garen eta nor garen, eta horrekin batera baita nora joan behar dugun irudikatzen ere. Baina berak ez du inoiz salbatzaile baten papera hartu, hori bai, gauzak garbi izan ditu eta garbi adierazi izan ditu: apaltasunez, baina konplexurik gabe. Eta horregatik izan da beti erraza berarekin lan egitea: gainetik zegoen, baina ez zen gainean jartzen. Joxeren hitzak dira: «Sinesten dut ur-jauzi sisteman». Inork ez du kulparik bestea baino tontoagoa delako, inork ez du meriturik bestea baino azkarragoa delako. Baina inor ez dago sobera: kontua da gutako bakoitza prest egoitea bere “ur tanta” eskaintzeko.

Bada, esandakoaren segidan ulertu

behar da aipatutako Joxe Azurmendi Katedra, zeinak bere pentsamendua ikertzeko, ustiatzeko eta transmititzeko helburua duen. Kontua ez da, beraz, bere obra mirestea edo gurtzea, baizik eta hori lantzea eta gurtzea. Bestelako hitzez esan dezakegu, eta Joxe ados legoke, bere obra erabili egin behar dugula, baita zikindu ere, helburua ez baita gure burua kritikoki indartzea baino. Bere liburuak eta bere artikuluak ez dira ukiezinak: gure osaketarako tresnak edo bitartekoak dira. Nahikoa da bere testu bat hartzea ideia interesgarri bat topatzeko, eta hori berrirakurtzea berriro zentzu berriak aurkitzeko. Bere obra ez da aspaldiko erlikia bat, inondik inora, baizik eta zuzenean eta espresuki aurrera begira dagoen pentsamendu garaikidea. Horregatik onartu zuen Joxe Azurmendik gure katedrari bere izena jartzea: garrantzitsuena ez da bere figura, baizik eta berak eman eta utzi digun lekukotza. Berari egin diezaiokegun omenaldirik onena Euskal Herriarekin konprometitzen jarraitzea da. Goian bego!



2016

LOREA AGIRRETEREKIN SOLSALDIA

Nik sinesten dut ur-jauzi sisteman. Hau da, norbaitek irakurriko nau eta haren burua martxan jarriko da. Ez dut esan nahi nik irakatsi diodala, ez. Norbaitekin hizketan ari garenean, edo norbaiten kontra idazten ari garenean, edo erreferentzia pertsonal bat daukagunean, kasik beti gure ideiak etortzen dira. Alegia, nire ideiak ez dira nireak. Ez dira propietate bat. Baina nire ideiak norbaitek irakurtzen ditu, eta bere ideiak martxan jartzen dira. Horrek ez du beste saiakera bat idatziko, baizik nobela bat idatziko du. Orduan, ideia hauek ur-jauzi modura iritsi egiten dira iritsi behar duten tokira. Hau da nire esperantza behintzat. Eta saiakera idaztearen justifikazioa edo.



EZ DUT heriotzera ez doan
bizitzarik konprenitzen.

*Eta bizitza
lainorik gabeko
euria bezelatsu da.*

BAINAN hil nadinean,
nire arima ehorzteko
bota zazute bide ertzeko
pago zaharraren ondora.

*Oroimenen
ta itxaropen imposibleen orbelez
estali,
pausoak entzun nahi ditut
heriotzaren ondotik.*

*Otoitza egingo du euriak.
Eta merezi badut
euskal herriek oroituko naute.*

JOXE AZURMENDI
(Hitz berdeak, 1971)

